

**Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat**

***Diccionario Histórico-Etimológico Vasco* (EHHE-200):  
Una presentación orientada al futuro**

***Le Dictionnaire historique-étymologique basque* (EHHE-200)  
de l'Académie de la langue basque : une présentation  
à visée prospective**

***The Basque Historical-Etymological Dictionary*  
(EHHE-200) of the Royal Academy of the Basque  
Language: a future-oriented presentation**

MANTEROLA, Julen

Euskaltzaindiaren Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren lantaldeko kidea  
jmanterola@euskaltzaindia.eus

Noiz jaso: 2020-10-30

Noiz onartua: 2021-01-09

*Euskera*. 2019, 64, 2, 2. 1165-1212. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Aurkezpen artikuluko honek EHHEren ezaugarri nagusien berri ematen du. Hiztegiaren atalak zerrendatu ondotik, haren osakeraren gakoak xeheki aletzen ditu: bertan tratatzen diren hitzak aukeratzeko irizpideak azaldu, eta esplikatzeko da hitzoi dagozkien sarrerak nola egituratu diren familiak hiztegiaren testua osatzeko. Horretaz gain, hiztegiko sarrera bakoitzaren egitura deskribatzen da eta egitura horren barreneko ataletako bakoitzaren berri ematen. Jarraian, EHHEk dakartzan aurrerapenen zenbait adibide ematen dira. Azkenik, etorkizunari begirako ariketan, EHHEk hobekizun dituen puntu zenbait zerrendatzen dira, praktika etimologikoari buruzko zenbait gogoetarekin batera.

**Gako-hitzak:** EHHE, aurkezpena, makroegitura, mikroegitura, etimologiaren kalitatea.

Este artículo de presentación da a conocer las características básicas del EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*). Una vez detalladas las secciones del diccionario, se explican sucintamente las claves de su contenido: explicar los criterios para elegir las palabras, como esta palabras (entradas) se han estructurado para componer el texto del diccionario en base a familias de palabras. Además se describe la estructura de cada entrada del diccionario y se dan a conocer los apartados de los que esta compuesta dicha estructura. Posteriormente, se citan algunos ejemplos de las novedades que trae consigo el EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*). Para finalizar y en un ejercicio de carácter prospectivo, se detallan algunos aspectos a mejorar, junto con algunas reflexiones en torno a la práctica etimológica.

**Palabras clave:** EHHE (*Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*), presentación, macroestructura, microestructura, calidad de las etimologías.

Cet article présente les caractéristiques de base du EHHE (*Dictionnaire historique-étymologique basque*). Il donne le détail des différentes sections du dictionnaire et explique de façon succincte les clés de son contenu : il explique les critères du choix des mots, comment ces mots (ou entrées) se sont structurés pour composer le texte du dictionnaire selon des familles de mots. De plus, il décrit la structure de chaque entrée du dictionnaire et présente le contenu de chaque paragraphe. Il donne ensuite quelques exemples des nouveautés de ce dictionnaire. Enfin et de manière prospective, l'article souligne quelques points à améliorer, ainsi que quelques réflexions sur la pratique étymologique.

**Mots-clés :** EHHE présentation, macrostructure, microstructure, qualité étymologique.

This article serves as a presentation of the main features of the EHHE (*Basque Historical-Etymological Dictionary*). After listing the sections that make up the dictionary, I dwell on some details of its composition, namely the criteria for choosing the words to be included in

the dictionary, and how they have been organized into lexical families. I also describe the structure of the entries, by defining the sections that form each of them. Thereafter I offer some examples that show the kind of advancements that the EHHE has made. Finally, I inventory the aspects that need to be improved in the EHHE, and I also reflect on the etymological practice with special attention to language isolates.

**Keywords:** EHHE presentation, macrostructure, microstructure, quality of etimologies.

## 1. Sarrera

Urtebete da EHHE kalean dela, eta orduan eginiko aurkezpena bere hartan hona ekartzeak partez galdu du bere zentzua orain: 12 hilabete igaro diren honetan, liburua bera da bere buruaren aurkezpena. Horregatik, egitasmoaren (§2) eta hiztegiaren ezaugarri nagusiak (§§3-4) eta haren emaitzak (§5) aipatzeaz gain, artikulua honetan argitaratu ondoko lan-norabideak, zuzenkizunak eta aldakizunak zerrendatu dira (§§6-7). Etorkizunari begirako aurkezpena da hau, hala esan badaiteke, hiztegiak, ikerketak berezkoa duen etengabeko aurrerapenean, egin beharko dituen etorkizuneko zuzenketei begirakoa.

## 2. Lantaldea eta lanaren banaketa

Joseba Lakarraren ekimenez eta Euskaltzaindiaren zuzendaritzak sustatuta –2009ko Barne Jardunaldietarako aurkezturiko egitasmo-txostena onartu ondoren– jarri zen abian Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren egitasmoa 2009ko bukaeran, bi teknikari kontratatuta, Iñaki Segurola eta Julen Manterola. EHHEren lantaldea, beraz, Joseba Lakarrak, Julen Manterolak eta Iñaki Segurolak osatu dute, eta laguntzaile gisa Koro Segurola eta Gabriel Fraile aritu dira.

Hastapen haietan, Joseba Lakarrak proposaturiko etimografiatzko bibliografia zabala irakurri eta beste hiztegi batzuetako egitura aztertu zuten bi teknikariek (ikusi §4.2). Lan horren ondotik, Iñaki Segurolak ekin zion lehen hitzen erredakzioari, sarrera prototipikoaren zirriborro eskematiko bat erdietsi arte. Lan horrek zedarritu zuen sarreren hezurduraren oinarriko egitura: hitzaren alderdi historikoaren atala, eratorrien atala eta berreiriketa-proposamenaren atala (atal historikoa eta atal etimologikoa, funtsean). Segurola bera arduratu da hitzen alderdi historikoa lantzeaz, testuetako lehen lekukotasunak bilatzeaz eta eratorriak zerrendatzeaz, familiakoak izan daitezkeen beste batzuk ere aipatuz eta etimologian interesgarriak izan zitezkeen auziak eta loturak azaleratuz. Lehen idatzaldi horretan oinarrituta, hark abiarazitako sarrerak garatzen zituen Julen Manterolak,

alderdi etimologikoa landuta. Seguiolak eta Manterolak bata bestearena irakurri, eta alderdi historikoan zein etimologikoan egiten zituzten aldaketak eta zuzenketak. Azken emaitza behin-behineko hori irakurtzen zuen Joseba Lakarrak, eta bere zuzenketak, oharrak eta aldaketa-proposamenak egiten zituen.

Alabaina, alderdi etimologikoa lantzeak bestelako doikuntzak ekarri zizkion sarreraren hasierako egiturari. Horrela, eratorri zenbaitek zehaztapen etimologikoak behar zituztela ikusi zen berehala, eta haiek ere tipografikoki nabarmenduta geratu dira, hain interesgarriak ez ziren eratorrien gainetik; azkeneko, puntu beltzarekin markatuta eta letra tamaina handiagoarekin ageri dira horiek. Bestalde, sarrera lexikoen hastapeneko egitura horrek berebiziko aldaketa bat izan zuen: etimologiaren atalean, hitzaren gorabehera etimologikoak lantzeaz batera, Erdi Aroko lekukotasunak corpus baten gainean sistematikoki arakatzen zirenez, eta datu horiek bertan aletu, atal hori desorekatua geratzen zen, etimologiazko eztabaidak eta datu proto-historikoak elkarren segidan emanda, bereizgarri lexikografikorik gabe. Ekarpen mota berri hori txertatzeko irtenbidea izan zen datu proto-historiko guztientzat (akitanierazkoak barne) berariazko atal bat sortu eta atal historikoaren ondora eramatea. Orobat, substratuzko datuen eztabaidarako ere beste atal bat sortu zen, historiazko eta proto-historiazko atalen ondotik eta eratorrien aurretik jartzeko.

Beste maila bateko aldaketa izan zen hitzak familiaka antolatzea; erabaki horri lotuta, Julen Manterolak familia bakoitzari buruzko diagnosi paragrafoa erredaktatu zuen. Familia bakoitza zein hitzek osatuko zuen, lantaldearen barreneko eztabaidetatik geratzen zen zedarritua.

Gabriel Frailek eta Koro Seguiolak berebiziko ekarpena egin dute EHHEren erredakzioan, batez ere hiztegiaren erredakzioak iraun duen 10 urteen bukaera aldera. Gabriel Frailek, Iñaki Seguiolarekin trebatuta, hainbat sarreraren lehen idatzaldia egin du, hitzaren alderdi historikoarekin eta eratorriekin sarreraren hezurdura osatuz. Koro Seguiola, berriz, aurkibideekin aritu da buru-belarri, Joseba Lakarrarekin lanean, EHHEn aipaturiko datu-kopuru eskergak erauzten eta antolatzen. Lan nagusi horietaz gain, biek ala biek hainbat proposamen eta zuzenketa egin dituzte testu osoaren gai-

nean: hutsak zuzendu, testuetako adibideak egiaztatu, lehen lekukotasunen datak ziurtatu, etab. Asko irabazi du azken emaitzak haien lanarekin.

Ondoko zerrendan daude xehakatuta EHHEn paperezko argitalpena osatu duten atalak eta hartara iristeko burututako lanak, haiei loturiko arduradunekin batera:

- a) Hitzaurrea → Joseba Lakarra.
- b) Bibliografiaren kudeaketa → Julen Manterola.
- c) Testu historikoen laburdurak → Iñaki Segurola, Julen Manterola, Gabriel Fraile.
- d) Erdi Aroko iturrien laburdurak → Julen Manterola.
- e) I. Eranskina: Zerrenda kronologikoa → Koro Segurola.
- f) II. Eranskina: Familien egitura hierarkikoa → Julen Manterola.
- g) II. Eranskinen aldaeren zerrenda → Koro Segurola.
- h) Aparatu lexikografikoa (ikurrak etab.) → Iñaki Segurola, Julen Manterola.
- i) Hitzen familia-kidetasuna → Joseba Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola.
- j) Familien barreneko hierarkiak eta antolaketa → Julen Manterola.
- k) Familien buruko diagnosia → Julen Manterola.
- l) Historiaren atala, eratorriak barne → Iñaki Segurola, Gabriel Fraile.
- m) Eratorrien informazio historikoa → Iñaki Segurola, Gabriel Fraile.
- n) Proto-historiaren atala → Julen Manterola.
- ñ) Substratuaren atala → Julen Manterola.
- o) Eratorrien etimologiak → Julen Manterola.
- p) Etimologiaren atala → Julen Manterola.
- q) Aurkibideak (ondokoak izan ezik) → Koro Segurola.

- r) Beste hizkuntzetako paraleloen aurkibidea → Gabriel Fraile.
- s) Aurkibide orokorra → Julen Manterola.
- t) Sarreren edukiaren moldaketak → Joseba Lakarra, Iñaki Segurola, Julen Manterola.

Bistan denez, talde-lana izan da hau, eta lantaldea txikia baita, elkarren lanen eta ekinbideen berri etengabea izan dugu, nor bere eginkizunetan arituta ere. Eztabaida etengabe horren ondorioa da EHHE.

### 3. Aurkezpen orokorra: liburuaren atalak

Liburua ondoko ataletan antolatua dago:

- a) Euskaltzainburuaren aitzinsolasa.
- b) EHHEren hitzaurrea, Joseba Lakarrak atondua.
- c) Iturriak eta bibliografia.
- d) Eranskinak:
  - I. Lehen agerraldien zerrenda kronologikoa.
  - II. Familien egitura.
- e) Hiztegia.
- f) Aurkibideak:
  - I. Etimologiaren zerrenda.
    - I.1. Ondare zaharreko hitzak.
    - I.2. Beste hizkuntzetako hitzak.
  - II. Beste hizkuntzetako paraleloak.
  - III. Onomastika.
- g) Aurkibide orokorra.

Ondoko atalean (§4), batez ere hiztegiaren erredakzioari (e) loturiko erabakien berri emango dut. Horiei lotuak diren heinean azalduko ditut fami-

lien egitura (d, II.) islatzeko eginiko zenbait hautu eta aurkeztuko dut egitura horretan nabigatzeko diseinaturiko aurkibide orokorra (g).

#### 4. Abiaturuko lanak

Egitasmoa abiarazteko, hiztegiaren diseinuari zegozkion bi gairi heldu genien: batetik, aztergai izango ziren hitzak aukeratzeko irizpideak zedarritu genituen; bestetik, sarrera bakoitzaren egiturak nolakoa behar zuen erabaki genuen. Ondoko bi azpiataletan emango ditut gai bakoitzari lotutako erabakiak eta nolako ondorioak izan dituzten hiztegiaren azken emaitzan.

##### 4.1. Makroegitura: zein hitz tratatu ditugun eta nola antolatu ditugun

EHHerako hitzak aukeratzeko, hiru irizpide nagusi erabili genituen:

- a) Hitzen lehen lekukotasunaren antzinatasuna.
- b) Hitzen orokortasuna, haien hedadura geografikoa.
- c) Hitzen inguruko bibliografiarik ba ote den, etimologia landua egotea (Mitxelenaren lanetan, batez ere).

Horrela, mila hitz inguruko zerrenda osatu genuen. Egitasmoaren zuzendari Joseba Lakarrak hasieratik erabaki zuen hiztegiaren egitura eta hazkundea modularra izatea. Hau da, ez ginen besterik gabe hitzak hurrenkera alfabetikoaren arabera lantzen hasi; horren orde, hiztegi alfabetiko arruntak letra bakoitzean dituen hitz kopuruen proportzioak kalkulatu, eta proportzio horiei atxikiz aukeratzeko genituen hastapeneko zerrendako mila hitzetatik zein landu. Hautu hori funtsezkoa suertatu da liburuaren argitalpenerako, A-tik Z-rako liburu bat argitaratu ahal izan delako. Izan ere, A-ko hitzak lantzen hasita, jarraian B-koak, gero D-koak... erredaktatzen aritu izan bagina, ez baikinena hamar urteotan Z-koetara iritsiko. Letra bakoitzeko hitz kopuru bat hasieratik aukeratuta, hori saihestu genuen, bai baitziren, gainera, alfabetoko azkeneko letretan hitz garrantzitsuak etimologiaren aldetik.



Egitasmoan aski aurreratuak ginela, eta sarreraren produkzioa aski ugaria zela, egitasmoaren hastapenean letrakako proportzioari emandako garrantzia lausotuko zuen bigarren erabaki bat hartu genuen: landutako sarrerak familiak, sarrera-buru nagusi baten azpian antolatzea erabaki genuen. Hautu honen zehar-ondorioa izan zen hainbat hitz berrirentzako sarrerak sortu beharra, familiak osatze aldera. Azkenerako, 200 familia osatu dira, 2600 bat hitzen informazio etimologiko, historiko eta filologikoarekin; euskararen ondare zaharreko 100 familia landu ditugu, eta beste hainbeste mailegu.

Ondoko bi puntu hauetan laburbiltzen ditut familiak antolatzeak berekin ekarri dituen erabakiak:

- a) Idealki, hitz baten eztabaida etimologikoan familia da unitate maximoa. Alabaina, Corominesek DECat-en eta DCECHn ez zituzkeen oztopoak ditugu guk, hark, besterik ezean, latinezko etimora jo baitzezakeen. Euskararen barrenean familia zabala osatzen duten hitzak sarrera bakarraren pean jarri ditugunean, familia horretako sarreraren aurretik diagnostiko orokor bat egin dugu, batera bildu diren hitz horien arteko harreman formalen, semantikoaren edo are izandako zailtasunen eta ezinen berri emateko. Horrela, bada, familiaren ordezkari nagusitzat jo dugun hitzari loturik, testu nagusiarekiko koska bat barrurago dagoen gogoeta orokorra jarri dugu, familiaren batasuna bermatzeko izan daitezkeen eragozpenak edo familia-proposamenaren justifikazio formalak eskaintzen dituenak. Diagnostikoko paragrafo horren adibideak ditugu EHHeko *eban*, *hats* eta *zur* sarreretan, besteak beste.
- b) Hitzak familiak antolatzeak bestelako inplikazio batzuk ditu: zenbait kasutan, hierarkia maila bat baino gehiago ezarri behar izan ditugu, familiaren barreneko hitzen arteko harreman etimologiko zehatza zein den argi egoteko. Adibidez, EHHEn argi ikusi dugu *atze*, *atzendu*, *azkar*, *hatz*, *atzeman* eta *hazi* familia berekoak direla, baina, denak azken buruan *hatz*-en eratorri formalak izanagatik, nahasgarria izango zen haren azpiko guztiak maila berean jartzea. Bestela esateko, *azkar*-en toki etimologikoa *hazi*-ren azpian dago (*hatz* → *hazi* → *azkar*), ez zuzenean *hatz*-en azpian; *atzendu*-rena *atze*-ren azpian dago, ez zuzenean *hatz*-en

azpian (*hatz* → *atze* → *atzendu*), etab. Hierarkia horiek ongi islatzea proposamen etimologikoaren parte ezinbesteko bilakatu da.

Interesatzen zaigunez sarreren antolamenduak berak nolabait islatzea harreman hierarkiko etimologiko hori, azpifamiliak “♦” zeinuarekin markatu ditugu. Familia zabal batzuk hiru mailako hierarkien arabera antolatu behar izan ditugu, hala nola *gain* eta *zur*, eta horietan sarre-rak “♦♦♦”, “♦♦” eta “♦” mailako azpifamilieta sailkatu ditugu; beste familia batzuetarako, berriz, aski izan dugu bi mailako hierarkiekin, hala nola *baratu*, *berna*, *eho* eta *hatz*, eta horietan “♦♦” eta “♦” mailako azpifamilieta antolatu ditugu sarrerak; azkenik, badira maila bakararekin (“♦”) aski duten familiak (*gor*, *haitz*) eta are hierarkia adierazpen beharrik ez dutenak ere (maileguak dira honen erakusgarri tipikoak, baina ez beti, cf. arestiko *baratu* eta *berna*).

Horrela, irakurleak badaki zeinu horietako bat ikusiz gero hitz horren deribazio etimologikoa goragotik heldu dela eta, tarteko besterik ez bada, familiaren sarrera orokor nagusira iritsiko da, (a) puntuan argitu dugun familiaren ordezkari nagusira (familiaren diagnostiko orokorra biltzen duenera).

Hitzak eta haiei dagozkien sarrerak familiaka antolatzeak hurrenkera alfabetikoa hankaz gora jarri du: familiaburuak, ageri denez, hurrenkera alfabetikoan eman ditugu hiztegian zehar; baina maiz gertatzen da familiaburu den hitzaren lehen hizkiak ez kointziditzea haren pean dauden azpisarreratako hitzen lehen hizkiarekin. Arestian aipaturiko adibidea gogora ekarriz, *atze* ez dago A hizkian, paperezko liburu fisikoaren hasiera xamarrean, nolabait esateko: haren familiaburu *hatz*-en azpian dago, eta ondorioz H hizkian aurkituko dugu.

Hortaz, EHHE ezin da erabili Ernout & Meillet, DECat eta DCECH bezala, sarreren egiturari haien zordun bada ere (ikusi §4.2). Hurrenkera alfabetikoaren desitxuratze hau gainditzeko, aurkibide orokor bat egin dugu, EHHEn landu diren hitz guzuen zerrenda alfabetikoarekin. Hiztegi bukaerako aurkibide orokor horrek funtzionatzen du zinezko hiztegi alfabetiko gisa, eta berak eramango gaitu hitzari dagokion familiara eta orrialdera, Bucken hiztegi aurkibidearen antzera.

#### 4.2. Mikroegitura: sarrerren egitura

Hierarkiaren edozein mailatan daudela ere, sarrera guztiek egitura maximo bera dute. Atal honetan sarrerren egitura hautatzeko zein eredu erabili dugun eta zein erabaki hartu ditugun aletuko dut.

Hiztegi honetako sarrera bakoitzak bi zati nagusi ditu, funtsean: bata hitzaren informazio historikoari dagokio, eta bestea, berriz, hari buruzko eztabaida etimologikoari. Eredu horretara iristeko, egitasmoaren hastapean hainbat hiztegi etimologikori gainbegiratu eman genien. Emaitza argia izan zen: hiztegi etimologikoena, zer diren ongi zedarritua egonagatik, aski genero heterogeneoa da (ikusi Malkielen lan klasikoa hiztegi etimologikoen tipologiaz eta, oraintsuago, Buchiren 2016koa) eta oso mota ezberdinetako obrak aurkitu genituen.<sup>1</sup>

Hiztegitik hiztegiara aurkitu daitezkeen ezberdintasunen atzean zenbait faktore zerrendatu daitezke:

- a) Hizkuntzaren tradizio idatzia zein den, modu batekoa edo bestekoa izango da hiztegi etimologikoa ere.
- b) Hizkuntzaren familia ezaguna izan eta ahaideak ongi ezarriak izan, horrek ere eragin zuzena du ikerketa etimologikoetan eta, ondorioz, baita hiztegi etimologikoaren egituran ere.
- c) Hizkuntzaren hizkuntzalaritza-ikerketen egoerak eta tradizio filologikoak isla zuzena izan ohi dute hiztegi etimologiko baten emaitzan.

Beste eredu batzuk baztertuta (Blust & Trussel 2010, Orel & Stolbova 1994, etab.), EHHeko sarrerren egitura zedarritzeko, gure tradizio filologiko eta lexikografiko europarretik hurbilagoko obrei jarraitu diegu (DCECH, DECAt, Ernout & Meillet), nahiz eta ikuspegi linguistikotik hizkuntza erromantzeak eta latina, euskara ez bezala, familia zabaletako partaide diren eta horrek etimologiarako eta berreraiketarako ondorio zuzena izan. Gure esperientzian, ordea, alde horrek ez dio bereziki erasan gure jardunari, eta

<sup>1</sup> Hori berretsi ziguten, gure galderei erantzunez, alor oso ezberdinetako zenbait ikertzailek, 20 bat familiatako ikerketen egoeraz genuen bibliografia eskuragarria osatzeko beren zuzeneko esperientzia eskatu genienean.

esan liteke tradizio europarreko hiztegi etimologikoaren generoa ongi egokitu dakiekeela tipologia ezberdinetako hizkuntzei, batez ere tradizio kultural –hots, idatzi– bertukoak baldin badira.

Gure hiztegiaren bereizgarri nagusia familiakako antolaketari eta hierarkia etimologikoei eman diegun isla grafikoa izan da (§4.1), baina, funtsean, aipaturiko eredu segitu dugu. Bestela ere, mundu mailan ez ditugu aurkitu euskara bezala ahaide ezagunik gabeko hizkuntza isolatuak tradizio etimologiko-lexikografiko finkatua dutenak. Japonierak, esaterako, ez du –edo ez zuen, egitasmoarekin hasi ginenean– hiztegi etimologiko akademikorik (Vovin, idatzizko jakinarazpena).

Corominas & Pascualen eta Ernout & Meilleten hiztegietako sarrerek antzeko egitura dute, eta helburuz kide diren zatiak dituzte, hurrenkerak hurrenkera: sarrera-buruaren ondotik, biek ala biek ematen dute hitzaren erabilera historikoaren berri, haren eratorri zenbaiten xehetasunak, eta eztabaida etimologikoa.

Aldeak alde, eredu horri segitu diogu guk gure sarreretako informazio historiko zein etimologikoa aurkezteko. Berezitasun zenbait dituzte gure sarrerek, ordea, ikerketa etimologiko, lexikologiko zein filologikoek euskal ikasketetan bizi duten egoerak hartaturik; gure sarreretan berariaz sorturiko azpiataletan islatzen dira berezitasun horiek. Jarraian, EHHeko sarre- ren zatiak deskribatuko ditut, horietako bakoitza markatzeko erabili diren ikonoak ere adieraziz, halakorik balego:

- a) Sarrera-burua: gorputz-testuarena baino letra-tamaina handixeagoan eman dugu, letra larritan. Letra lodia ere erabili dugu, familiaburua edo azpifamilia baten burua baldin bada. Zenbait kasutan euskara batuko formatik aldendu gara, irizpide etimologikoa lehenetsiz (cf. HUR ‘ur’, AZKAZI ‘askazi’). Zenbait kasutan, formatu bikoitzean eta are hirukoitzean eman ditugu sarrerak, batera bilduz jatorri bereko aldaera dialektal nagusiak (cf. APEZ/APAIZ, ERAMAN/EROAN, etab.) edo etimologikoki lotuak direnak (cf. PORTU/BORTU/MORTU, GUTUN/KUTUN, SEIN/SEHI, etab.).
- b) Hitzaren lehen lekukotasunaren data: sarrera-buruaren ondoan eman dugu, parentesi artean; hitzaren aldaera nagusien datarik zaharrenak

ere eman ditugu. Etzanean eman da aldaera, haren ondoan urtea eta bi punturen ondoren iturria. Zenbait kasutan adibide konkretua ere ezarri dugu –Erdi Aroko gehienak, esaterako, parentesi karratuen artean eman ditugu–, edo, zailtasun filologiko edo grafiakoren bat baldin badu lehen lekukotasuneko datuak, jatorrizko testuan nola dagoen ere adierazi dugu (cf. HIGUIN sarreran <yguny>).

Ziurtzat ematen ditugun adibideak baizik ez ditugu erabili hitzen lehendabiziko data hauek zedarritzeko tenorean. Erdi Aroko lekukotasunen batek hitzaren lehen lekukotasuna aurreratu lezakeenean, “ik. Erdi Arokoak” bezalako formulak erabili ditugu; orobatsu akitanierazkoekin. Zenbait kasutan, eratorriren bat lehenago dago lekukotua hitz nagusia baino; halakoetan, eratorria bera ez badugu jarri, eratorrirako deia egin dugu.

Oso gutxi dira hitzaren lehen dokumentazioaren parentesi arteko atal hau ez duten sarrerak. Lekukotasun bakarrekoak edo ia bakarrekoak izan ohi dira, eta jarraian datorren parte historikoan berehala geratzen da argi zein den hitzaren iturria. Horren adibide da RSKo DAGUENIL.

- c) Hitzaren informazio historikoa: “■” zeinuarekin hasten da atal hau. Bertan, hitza testuetan eta bestelako iturri historikoetan non eta nola erabili izan den deskribatu da: hitzaren aldaera eta adiera nagusiak jaso dira, batez ere eztabaida etimologikorako esanguratsuak direnak. Neurri batean, OEHN dagoen informazioaren elaborazio bat da atal honetakoa eta bertan biltzen diren adibideak haren zordun dira, grafia gaurkotua barne. Atal honek badakar, ordea, EHHE idatzi zen garaian behintzat OEHN bilduta ez zeuden hainbat testutako informazioak ere: horren adibiderik behinenak dira Maiorak azken urteotan argitara ekarri dituen Nafarroako esaldi eta testuak.<sup>2</sup>
- d) Hitzaren informazio proto-historikoa: “□” zeinuarekin hasten da atala. Erdi Aroko agiriak sistematikoki arakatu dira, nire tesiko (Manterola 2015) corpusa oinarri hartuta. Gure filologiaren egoerak hartararuta, atal hau da hiztegiaren bereizgarrietako bat: Arzamendiren lana (1985)

<sup>2</sup> Maioraren lanetako datuak bilduak dituzte OEHN geroztik.

aspaldi dago gauditua (besteak beste, hainbat direlako geroztik editatu diren bildumak eta izenen analisisan ere aurrerapen nabarmenak izan direlako), eta ezinbestekoa gertatu da berariazko atal bat sortzea, Coromines, Ernout eta Meillet eta besteren eredu soilagotik aldenduz. Hiztegiaren idazte prozesuaren hastapenean parte historikoan zeuden akitanierazko datuak, era berean, atal honetan egokitu dira.

- e) Euskal substratuko beste hizkuntzetako hitzak: “◊” zeinuarekin hasten da atal hau, eta ez da proto-historiari dagokion atala bezain maiz agertzen. Zenbait kasutan, beste hizkuntzetan aurkitu daitezkeen euskal jatorriko hitzen informazioa eman dugu hemen, hitzaren inoizko hedaturaren eta bizitasunaren erakusgarri delakoan (ik. *azkar*). Eredu gisa harturiko hiztegien egituran ez dago holako atalik, baina egia da, hala ere, Ernout eta Meilleten hiztegian maiz ematen zaigula latinak erromantzeetatik kanpo utzitako arrastoen berri, hala nola hizkuntza zeltetan, eta Corominesen hiztegietan ere euskara sarri ageri dela hizkuntza hartzaile gisa.

Bi motatako informazioa aurkitu daiteke atal honetan: batetik, substratuzko adibide garbiak ditugu –gogoan har bitez Arabako eta Nafarroako erdarek egindako erreferentzia ugariak eta, zenbait kasutan, baita gaskoizko hitzei ere–; bestetik, euskaratik beste hizkuntzetera hedaturiko hitzen adibideak ditugu (horien artean, *ezker* hitzarena dugu kasu paradigmaticoa).

- f) Eratorri esanguratsuak: “●” zeinuarekin adierazi ditugu; bete-beteko sarrera diren hitzetan bezala, letra larritan eman ditugu (baina gorputz-testuaren letra-tamainan, halere); orobat, koska bat barrurago sartu dugu testua. Hiru irizpide erabili ditugu eratorri bat esanguratsutat jotzeko eta, ondorioz, sarrera maila emateko: 1) haren osakerak zehaztaperen etimologikoen beharra izatea –edo horretarako bide ematea–, 2) Erdi Aroko edo proto-historiako datu esanguratsuak egotea eratorriari buruz, 3) eztabaida filologiko interesgarriren bat izatea hitzaren inguruan.
- g) Bestelako eratorriak: gorputz-testuarena baino letra-tamaina txikiagoan eman ditugu, koska bat barrenerago eta elkarren segidan guz-

tiak. Azken buruan, hitzaren bizitasunaren berri ematen dutelakoan ekarri ditugu hona eratorri hauek guztiak ere.

- j) Eztabaida etimologikoa: “▶” zeinuak adierazten du atalaren hasiera. Hemen eman ditugu hitzaren eztabaida etimologikoari dagozkionak: aitzin-formak edo forma berreraikiak, datu berriak –Erdi Arokoak, testu berrietakoak– nola egokitu diren proposamen etimologikoetan, zenbait eztabaida filologiko (cf. *gatzai*), etab. Parte historikoan zerrendaturiko aldaeren arteko harreman kronologiko erlatiboa eta deribazio fonetiko zehatza zedarritu dugu gehienetan; ohitura estandarri segituz, “>” eta “<” zeinuak erabili ditugu horretarako. Hitzaren deribazioan bilakaera fonetiko hutsetik haragoko bilakaera morfologikorik baldin bada –analogia, atzeranzko osaera...–, horretarako “→” eta “←” zeinuak erabili ditugu. Saiatu gara, halaber, alderdi historikoan deskribaturiko erabileren eta adieren arteko harreman diakronikoa zein den zehazten, eta horretarako “→” eta “←” zeinuak erabili ditugu.

Bilakaera semantikoen auzian, bai hitz beraren adierak azaltzeko, bai familia berekotzat jo ditugun hitzen loturarako, ahal izan dugun guztietan beste hizkuntzetako paraleloekin bermatu ditugu proposatutako lotura semantikoak. Horretarako, lagungarria izan da Bucken hiztegia (1949), bertan esanahika baitaude bilduta eta aztertuta IE hizkuntzetako hitzak, ez ezinbestean kognatuka; horrekin batera, beste hiztegi etimologikoetako informazioa ere erabili dugu esanahizko xehetasunak argitzeko (adibidez, hizkuntza dravidiarren Burrow & Emeneauena, grezieraren Beekesena, etab.) eta, etorkizunean, espero izatekoa da polisemiari buruzko datu-baseek emaitza interesgarriak ekartzea arlo honetan (ikusi CLICS<sup>3</sup>). Paralelo semantikoen bilaketaren ariketa honetan modu sistematikoan aritzeak ustekabeko emaitzak ekarri ditu, eta horietarik ikusgarrienetako bat da, adibidez, itxuraz hurbiltasun semantikorik ez duten *gari* eta *galdu* hitzen arteko lotura argitzera iritsi izana.

Ez dugu atal berezirik sortu hitz bakoitzarentzat izan diren proposamen etimologiko guztiak biltzeko, bestelako lana baita hori, historiografikoa, eta helburu hori aski ongi betetzen du (O letraraino, behintzat) Agud & Tovarren

hiztegi bukatugabeak. Bai arakatu dugu sistematikoki etimologoen bibliografia: Boudaren, Gavelen, Lacomberen, Lafonen, Schuchardten eta Uhlenbecken lan zaharrak berariaz begiratu dira, eta baita ASJU, BAP, FLV, RIEV eta *Eusko-Jakintza* aldizkariak ere, horietako etimologiak ezagutzeko eta Bähr, Hubschmid, Vinson eta halako autoreen lanen berri ere izateko.

#### 4.2.1. *Ohar bat etimologien iturriez, haien egiantzekotasunaz eta eguneratzeaz*

Kasu batzuetan aitzindarien teoriak aipatu izan ditugu eztabaida etimologikoaren atalean, eztabaidakizun interesgarriak biltzen zituztelako edo tradizio luzeko etimologiak zirelako (cf. Schuchardtek *bazkari*-ri edo *entzun*-i buruz esandakoak).

Izan diren hipotesi guztiak bildu gabe ere, eztabaida etimologikoak hala eskatu duenean –hitz baten osaeraz ziurtasun erabatekorik ez dugunean–, bai eskaini dugu etimologia bat baino gehiago (cf. *agur*, *eguen*, *ortzi*, besteak beste), betiere egiantzaren mugetan ulertzen ditugunen artean. Horrela jokatu dugu baita gure proposamenen artean zalantza genuenean ere. Are gehiago, eztabaidak eztabaida eta argudioak argudio hitz baten familia-kidetasuna argia edo guztiz erregularra ez bada (formazko zein esanahizko arazoak direla medio), “!” zeinua ezarri dugu sarreraren hastapenean, eragozpen horien ohargarri gisara. Ikusi §7 atala.

EHHEn jaso diren etimologia guztiak ez dira gureak, eta ahalegin berezia egin da proposamenen azken iturria bilatzen. Nolanahi ere, etimologia gutxi geratu da, euskalari aitzindariengandik jasoak izanagatik, inolako ukiturik gabe; esan daiteke sistematikoki eguneratu ditugula etimologia guztiak, dela xehetasunetan, dela datu berriek ekarritako argiaren bidetik.

## 5. EHHEn emaitzak

Etimologien etengabeko eguneratze horrek ekarri dituen zenbait emaitza aurkeztuko ditut atal honetan.



### 5.1. Lehen agerraldiak

EHHEn sistematikoki arakatu dira Erdi Aroko agiriak. Jardun honen emaitzarik behinenetako bat da hainbat hitzen lehen lekukotasunen data aurreratu ahal izana, OEHN agertzen denarekiko. Taula honetan bildu ditut adibide batzuk.

**Taula 1.** Hitzen lehen lekukotasunen datak

Hitza	OEH	EHHE
<i>abar</i>	~1650	1007
<i>adar</i>	1545	~1090
<i>aho</i>	1571	~1173
<i>aingeru</i>	1545	1248
<i>alargun</i>	1562	1488
<i>ate</i>	1562	872
<i>batzarre</i>	1461	1393
<i>bost</i>	XV. m.	1051
<i>ebaki</i>	1545	1393 ( <i>eban</i> )
<i>erre</i>	1545	1025
<i>gazi</i>	1571	1321
<i>harea</i>	1623	~1222
<i>hauts</i>	1562	1353
<i>iloba</i>	~1580	1290
<i>min</i>	1475	1415
<i>negu</i>	1562	1290
<i>or</i>	1562	1394
<i>orein</i>	1562	1043
<i>oste</i>	~1564	1465
<i>senar</i>	1319	1294
<i>sein</i>	~1564	1301
<i>txirta</i>	1905	1544
<i>zehir</i>	1475	1321

## 5.2. Aldaera berriak

Hiztegiko lemen lehen agerraldien data aurreratzeaz gain, Erdi Aroko datuen arakatze sistematikoak orain arte ezezagunak diren aldaerak aurkitzeko aukera eskaini du. Adibide modura, hona hiru lema ezagunen aldaera zenbaiten lekukotasunak:

- a) *ibai* lementzat, *ibahi* eta *ibain* aldaerak aurkitu ditugu:<sup>3</sup>
  - *ibahi*: *Sagibahia* (1128).
  - *ibain*: *Ybayn* (1390), *Oreyvayn* (1453), etab.
- b) *garai* lementzat, *garahi* eta *garain* aldaerak aurkitu ditugu:
  - *garahi*: *villa Yzcarahi* (1110), *Hazcarahy* (1154).
  - *garain*: *Garayn* (1390, 1452), *Garain* (1399), etab.
- c) *sustrai* hitzarentzat, *sustai* eta *susai* aldaerak aurkitu ditugu, orain arte hari garbiki lotzen ez zitzaion *zurzai*-rekin batera.
  - *sustai*: *Sustaeta* (1388, 1397), *Sustayeta* (1390, 1449, 1452), *Sustaya-ga* (~1436), *Sustaiça* (1470), *Sustayça* (1493), etab.
  - *susai/zuzai*: *Ynchaurçuçaeta* (1483), *Çuçaeta* (1502), etab. Cf. gaurko *Susaeta*.
  - *Çurçaytoqui* (1291, 1293), etab.

## 5.3. Aurrerapen filologikoak

Testuen analisisan arazo filologiko ziren puntu zenbait ere argitu ditugu, edo gure uste etimologikoen arabeko proposamen eguneratua egin dugu haientzat. Bi adibide dakartzat hona:

- a) Milia Lasturkoren eresian bada Gayangosen edizioak (1854: 179) *andrioc ala cumpli jasoric* irakurri zuen pasarte bat,<sup>4</sup> Mitxelena (TAV §3.1.5)

<sup>3</sup> Urtea bakarrik adierazi dut; iturriaren berri izateko, ikusi EHHE.

<sup>4</sup> Berdin dakar Urquijok (1919: xxxvii, oh.) eta antzera Guerrak (1924: 40), *andřari ok ala kumpli jasoric*. Moyaren edizioak (1999: 99), berriz, “Andi ariok al cumpli jasoric” transkribatu du.

arazotsutzat zuena, eta Garibaik berak “y que con mucha grandeza habia sido ella sustentada” itzulpenarekin azaldu zuena. Mitxelenak (1966: 134-135) *andari* ‘gorpu eramaile’ izan daitekeela uste du –Azkuek jasotako hitza da hori–, horretarako esanahiari dagozkion bihurritzeak eginda.<sup>5</sup> Guerrak dakarren faksimila kontsultatuta (Guerra 1924: 277), ordea, *andarioc* ere irakur daitekeela ikusi dugu: <d> ondoko <i> punturik gabe egoteak ekarri du gaizki-ulertua, <r> gisa irakurtzea; alabaina, hiru bertso-lerro beherago (*Guilça porra andiaen jabe çan*), *andi* hitzeko <i> ere punturik gabe dakar Garibaik. Ikusi oin-oharrearain Mo-yaren edizioari irakurketa ere. Hitz hau, *andari*, dokumentatua dago bizkaieraz, eta frai Bartolomereren adibideetako bat “grandeza” itzultzen du Azkuek; Garibairen “con mucha grandeza” itzulpen zatiarekin bete-betean ezkontzen da horrela. Bide batez esanda, orain ikusten dudanez, Mitxelenak berak iradokia zuen azalpena 1966ko artikuluan, hauxe idatzi baitzuen *andari*-ren hipotesia hobetsi baino lehen: “Eta Garibayk «con mucha grandeza» dioenez gero, pentsa ere daiteke ez ote den *andi*-ren aldaska, \**andi-ari* edo horren gisako hitz ezezagunen bat”.

- b) Gaztagintzari loturiko hainbat hitz *gatz* hitzaren eratorriak direla uste badugu (ikusi §5.4), aukera dago hobeki ulertzeko Urrexolako gudua-ren kantuko *gaçaioa* hapaxa, Mitxelenak *gatzatu* zuzentzen duena (TAV §3.1.3): errimarik galdu gabe, pentsa dezakegu *gatzak joa* osara duela hapax horrek, besterik gabe. Gainera, Lazarragaren *Relación histórica*-ren jatorrizko eskuizkribua zuzenean kontsultatzeko aukera dugu orain, Sancho el Sabio Fundaziokoek digitalizatu eta sareratu baitute, eta oso garbi irakurtzen dira bertan <gaica cenduan, lenizanos, Urruxolaco lecaioa; sendo cenduan odolori biurrtu jacu gacaioa> eta jarraian duen <*Gacaioa* quiere dezir coajado>. Bokati-boa bera, <lenizanos>, hala utzi behar dela uste dugu, Mitxelenaren *leintzarrok* zuzenketaren aurka: Lazarragaren eskuizkribuan (B15:100) badugu holako beste bat, “Ona bada, señoras claram[en]te / nun relatadu dan çuen bicia” (Bilbao *et al.* 2020, II: 494).

<sup>5</sup> Ideia hau berau dakar Bidegainek (1967: 183, 1. oh.), urtebete geroago argitaratuta, argudio berberekin horniturik.

#### 5.4. Etimologietan sakontzen

Gorago esan bezala, gutxi dira eguneratzerik gabe utzitako etimologiak. Hiru adibide ekarri ditut hona, aurrerapen horien lagin modura:

- a) *Gazta*-ren berreraiketa klasikoan, euskalkietako aldaeren konparazioz (*gazta*, *gasna*, *gaztai*...) \**gaztane* edo \**gaztana* berreraikitza iritsi ziren aurreko euskalariak. Gaztagintzari loturiko hainbat hitz (*gazur*, *gatzun*, *gatzagi*...) familia berean aztertuz, horien guztien oinarrian *gatz* egon daitekeela proposatu dugu.<sup>6</sup> Hipotesi hori bermatze aldera, lan etnografikoetan arakatu dugu, erakusteko gatzak nolako garrantzia duen gaztagintzan, eta aurkitu dugu hizkuntzarik gatzaren izenaren oinarrian ‘gatz’ esanahia duen hitza duenik.
- b) *Hezur*-en kasuan ere, Mitxelenaren (1949: 201; FHV 119, 16. oh.) \**enazur* berreraiketa klasikotik abiatuta, eta Lakarraren (1995) erro monosilabikoaren teoriak hartaratuta, hiru silabako aitzin-forma hori hainbat osagaitan zatitu dugu, eta bigarren osagai gisa *zur* egon daitekeela proposatu. Aukera honen alde, hainbat hizkuntzako datuak ekarri ditugu, Bucken (s.v. *bone*) hiztegia lagun, erakusten dutenak ohikoa dela ‘hezur’ esanahia duten hitzen oinarrian ‘makila’ edo ‘zurtoin’ esanahia dutenak egotea.
- c) *Gari* eta *galdu*-ren arteko harreman formala begien bistakoa izanagatik (cf. *sari/saldu*), haien arteko lotura semantikoa zen argitzeko zegoena. Horretarako ere, beste hizkuntza batzuetako eredia argigarria suertatu da zinez: hizkuntza indoeuroparrak aintzat hartuz gero, ikusten baitugu \**ter* ‘igurtzi, xehatu’ erro beraren ondorengoak direla bai errusierazko *terjat* ‘galdu’ (ik. Buck s.v. *lose*) bai latinezko *trīticum* ‘gari’.

Nire ustez, euskal lexikoaren barrenean halako loturak ezartzea, familia-harreman orain arte ezezagunak aurkituz, gure lanaren emaitza behine-

<sup>6</sup> *Gazta* hitzean bide dugun \**gatz-bane* > \**gaz-t-ane* horrentzat, *ikaztobi* (< *ikatz* + *hobi*) eta halakoez gain, badugu *gatz*-en familian bertan *gatzarri/gaztarri* bikotea ere (< *gatz* + *harri*), Markel Lizasoain adiskideak jakinarazi didan bezala: cf. *Gaçarrieta* (*IzaTop* 1596) eta *Gaztarrieta* (*IzaTop* 1595).

netako bat da. Eta askoz interesgarriago deritzet halako emaitzei, ezen ez Blevinsena moduko proposamenei (2018: 262), *gatz*-en aitzin-forma gisa \**gar-s* proposatuz, adibidez, ez baita hitzaren familiari dagozkion galdera oinarrikoagoez batere arduratzen. Are nabarmenagoa suertatzen da euskal lexikoaren arazo errealetatiko aldentze hau, Blevinsek berak aitortzen duelarik \**gar-s* > *gatz* bilakaeran irregularra dela dardarkariaren galera. Zertarako, bada, holakorik proposatu? Erantzuna argigarria bezain etsigarria da: hartara, hark proposatzen duen \**gar* ‘ale’ erroaren adibide bat gehiago duelako; *gatz*-en familia ezagun-ustekoaz arduratu gabe, ordea.

Agian emaitza xumeagoa da gurea, sakontasun kronologiko apalagokoa, baina ikerketaren ardatza euskal lexikoaren azalpenean du kokatua, ez balizko ahaidetasunen frogatu nahi berez antzuan. Zeren eta balizko ahaidetasun hori frogatuko balitz ere, ahaidetuta daudekeen hizkuntzetako datu xume horiek dira azaldu behar direnak. Berreraiketa ez da egiten ahaidetasunak frogatzeko, hizkuntza konkretuetako arazo konkretuei azalpen osoa-koak eta hobeak emateko baizik. Eta horiei erantzuna emateko duen gaitasunean indartzen da, edo ez, ahaidetasuneko proposamena.

### 5.5. Jatorri erromantzezko lexikoan sakontzea

Hiztegi honek garbi erakutsi du badela lanik are agortutzat genuen maileguren alorrean. Nabarmena da askoz etekin kuantitatibo urriagoa dakarrela maileguren azterketak, definizioz familia txikiak osatzen baitituzte, ondare zaharreko hitzen aldean: begien bistakoa da aldea, *hatz*-en familia lantzeko hiztegiko 323-342. orrialdeen arteko tarte behar izan baitugu, eta *putzu*-rena lantzeko, berriz, 506-507. orrialdeen artekoa. Are gehiago, hiztegiaren egiturari dagokion II. eranskinean ikusten dugu *hatz*-en familian 102 hitzi buruzko informazio etimologikoa eman dugula; *putzu*-renean bi hitz baizik ez ditugu.

Baina emaitza kualitatibo oso garrantzitsuak dakartza maileguren azterketak, euskalaritzatik harago eramaten gaituztenak. *Putzu*-ren kasuan, esaterako, Erdi Aroan Nafarroan dugun *buitzu* aldaera irristariduna berebizikoa da gaskoiaren berreraiketarako. *Deitu*-ren eztabaida etimologikoa, bestal-

de, Erdi Aroko dokumentazioan erromantzezko *deito* aurkitu dugu, orain arte erromanisten artean ere dokumentatu gabea. EHHEn argitaraturikoaz gain, oraintsu argitaratu den lan batean aurkitu daitezke xehetasun gehiago (Manterola 2020).

Ahalik eta gehiena hertsatu behar dugu maileguen jatorria, euskal formatik hurbilen dagoen forma erromantzea bilatuz: “etimologia prossima”, ahalik eta “prossimena” behar dugu maileguen azterketan (Buchi 2016: 346-347).

Horrela, Mitxelenak zehar-aipuz egiten zituen iradokizunak gaintzeko aukera izan dugu hiztegi honetan, eta etorkizunean ere ezingo dugu halako hurbilketa lausoekin konformatu. Hala egin dugu ondoko kasu hauetan:

- a) Mitxelenak iradokitakoaren aurka (FHV 494), *extei* ez da \**bexta-jei* batetik heldu: *exzeiatu* aditzetik sorturiko izena da, zeina era berean gask. *hesteyà* ‘ospatu, oturuntza egin’ moduko batetik mailegatua den.
- b) EHHEn landu dugun hipotesiaren zuzentasuna gorabehera (ondare zaharrekoa izateko aukera aztertu dugu), argi dago *poz*-en etimologiarako ezin dugula besterik gabe esan “*poz* ‘alegría, gozo’, procedente de algún representante del lat. *gaudium*” (Michelena 1957: 116).<sup>7</sup>
- c) *Sendo*-ren kasuan ere, Mitxelenaren (1950: 474-475) *exemptus* hipotesiaren ahulguneak zerrendatu ditugu (zergatik ez duen *z-*, mailegu zahar bati legokiokeen bezala, zergatik duen *-o* bukaera, eta ez *-u*, etab.), eta hitzaren oinarrian *sen* egon daitekeela argudiatu dugu.
- d) *Garratz*-ena dugu antzeko kasua: gatz. *agraz* ‘garratz’-en ikusi izan zaio jatorria (Gorostiaga 1982: 112), baina eragozpen fonetikoak ditu

<sup>7</sup> Badirudi Schuchardtengandik jaso zuela Mitxelenak euskarazko *poz* eta latinezko *gaudium* lotuta egon zitezkeelako ideia: Schuchardtek (1887: 493) gaztelaniazko *gozo*-rekiko hurbiltasun semantikoa hartzen du aitzakia moduan, hitzen hastapeneko *p-* eta *g-* soinuen arteko aldeak dakarren arazoa gaintzeko (jarraian gatz. *gozo*-ren xehetasun etimologikoak argiak ez direla esaten du Schuchardtek, eta latinezko *gaudium* eta *gustus* aipatzen ditu, besteak beste). Ezbaidaren bukaeran (Schuchardt 1887: 495), gatz. *gozo* eta eusk. *boz*-en arteko *g-* > *b-* aldaketa gaztelaniaren barrenekotzat jotzen du –ez du uste euskararen barrenekoa izan daitekeenik–, gatz. *vomitar/gomitar* aldaerak aipatuz.

(a) *graz* > *garratz* bilakaerak, bokal anaptiktikoa tartekatzen denean bakuna izaten baita dardarkaria (cf. lat. *granu* > *garau*). EHHEn landu den aukera da *gar*-en eratorria izatea.

- e) *Xede*-ren kasuan ere, Lhandek iradokitako *sedes* jatorriaren hipotesia begi onez ikusten du Mitxelenak (FHV 183, 6. oh.), alderdi semantikoa argitu beharra dagoela nabarmenduz, hala ere. Guk, ordea, *eztei*-ren kasuan bezala, aditzetik eratorri dugu hitz hau, *xedatu*-tik alegia (zeina, era berean, aditz mailegatua den); aukera honek hobeki azaltzen du alderdi semantikoa, erromantzean bertan baititugu euskarazkoa azaltzeko behar ditugun adierak.

Hiztegiaren edizio honetan ez badaude ere, etorkizuneko edizioetan edo bertsio berrietan sartu beharko dira, bestalde, *amorr*u hitzari eta *makila*-ri dagozkionak. Hauen gorabehera etimologikoak azaltzeko berebizikoa da atzeranzko osaerazko bilakaerak aintzat hartzea:

- f) Euskarazko *amorratu*, *amorrazio* latinezko *abhorre*re-tik etor litezkeela iradokitzen du Mitxelenak (1954: 117). Ez da hala. Gaztelania zaharreko *amorrar*-etik dugu zuzenean euskarazko *amorratu*; ohart bedi euskararen barrenean batez ere Bizkai-Gipuzkoetan dokumentatzen dela hitza. Esanahiaren aldetik erabatekoa da kidetasuna: gaur egungo DLEn bertan, *amorrar*-ek badu “Bajar la cabeza, obstinándose en no hablar” adiera; definizio horretan dugun “obstinarse” hori bete-betean lotzen da euskal hitzaren ‘tematu’ adierarekin. Nabarmena denez, aditzetik sortua da, atzeranzko osaeraz, *amorr*u (cf. *aipatu* → *aipu*).
- g) Latinezko *baccillum* ‘makilatxo’-tik abiatuta azaltzen du Mitxelenak *makila* (FHV 51). Alabaina, euskarazko emaitza erregularra *\*\*makilu* izan beharko genuen. *Makila*-ren bukaerako *-a* bokala azaltzeko, pluraleko *bacilla* batetik abiatzen da Mitxelena (1957: 153). Hipotesi honetan, ordea, pluraletik abiatzeko motibazioa ez da argia: latinezko pluraletatik mailegaturiko *denbora* eta *berba* hitzen kasuan mailegatze berezi hori egoki azaldu daiteke erabilera sintaktiko jakin batzuen arabera (cf. *berba egin*, zeinetan interpretazio plurala izan dezakeen aditz arinari loturiko izenak, Manterola 2012: 193).

Egokiagoa da bestelako azalpen bat bilatzea: *makila* ere aditzetik atzeranzko osaeraz sorturiko izena da, *extei*, *uxta* (← *exteiatu*, *uxtatu*) eta halakoen gisara; eta *makilatu* aditza dokumentatua dugu euskaraz XVII. mendeaz geroztik. Aditz honen jatorritik hurbilen okzitanierazko *bacela* ‘arropa palaz astindu, jo’ forma aurkitu dut, hau berau *baccillum*-en eratorria (FEW 1, 201a, BACILLUM), eta okzitanierazko aditz horren aitzin-forma erregularra, agerikoa denez, aitzin-erromantzezko *\*bacilatu* (*\*bacilare*) moduko formaren bat izan bide zen.

## 6. EHHEn zuzentzekoak

Ohikoa da liburu bat argitaratu ondoren ohartzea, produktu argitaratu osoa denbora batez esku artean izateak eta hala norberak nola beste iker-tzaile batzuek erabiltzeko ematen duen perspektibarekin, bidean zalantzazko izan diren erabaki batzuk beste era batean bideratu zitezkeela. Hiztegiaren beste edizio batzuetarako edo sareko bertsiorako, komeni da zenbait aldaketa eta zuzenketa egitea EHHEn paperezko bertsioan argitaraturiko testuari, eta hemen zerrendatuko ditut nire ustez hobetzeko tarte nabarmena duten alderdiak.

### 6.1. Zerrendak eta aurkibideak

Zenbait arazo aipa daitezke aurkibide eta zerrenden harira.<sup>8</sup> Diagnosi orokor bat egin behar izanez gero, esango nuke batzuetan aurkibidearen kontzeptutik harago jo nahi izan dugula aurkibideak osatzeko tenorean.

Irudipen hori azalduko dut. Lehen agerraldien zerrenda eranskin gisa jarri dugu, ez aurkibide gisa, eta hala dago egokien, zerrenda horrek ez baitu aurkibide funtziorik betetzen. Bestela esateko, bertan dauden informazioek ez gaituzte hiztegiko testura eramango, ezein irakurle ez delako ba-

<sup>8</sup> Koro Seguroiak lan bikaina egin du aurkibideetarako eta eranskinetarako datuak prestatzen eta ordenatzen, eta lantaldearen erantzukizunekoak dira aurkibideok diseinatzeko tenorean izaniko ezbaiek eta batzuetan harturiko erabaki zalantzazkoak.



nan-banan joango testuan begiratzera zerrenda honetan 1571. urtearekin topatzen dituen hitzak, bertan daten arabera hitzak bilatu ondotik. Gehie-  
nez ere, irakurleak zerrenda hori erabiliko du jakiteko halako urtetan zein  
hitz sortak izan zuen lehen lekukotasuna.

Esan bezala, hitzen lehen agerraldiak zerrenda soil gisa aurkeztea, eta ez  
aurkibide gisa, egoki eta are baitezpadako iruditzen zait. Alabaina, aurkibi-  
de gisa eman ditugun zenbait hitz zerrendak ez dute aurkibide funtziorik  
batere betetzen (etimologiaren zerrenda da honen adibiderik behinena, ikusi  
jarraian): ez daude diseinatuak hiztegiko testuaren barrenean gauzak *aurki-  
tzeko bide* izateko helburuz; besterik gabe, zerrenda soilak dira. Hiztegiko  
testua irakurri gabe hiztegiko informazio zenbaiten berri izateko osatutako  
zerrendak dirudite. Ondorioz, nahasgarria izan daiteke “produktu” horiek  
aurkibide gisa aurkeztea, eta egokiagoa da gure lanaren zerrenda sinoptiko  
modura beste atalen batera lekualdatzea, eranskinen artera, adibidez.

Ondoko puntuetan aletuko ditut xehekiago hemen aipatutakoak:

- a) I. aurkibidea “Etimologiaren zerrenda” goiburuean bildutako bi hitz  
zerrendak osatzen dute: batetik “1. Ondare zaharreko hitzak” ditugu,  
bestetik “2. Beste hizkuntzetako hitzak”. Nire ustez, zerrenda hauen  
aurkibide funtzioa ez dugu behar bezala zehaztu, ez behintzat aurkibi-  
deen artean aurkezteko moduan: hiztegi etimologiko batean, nekez  
gingo du irakurleak etimologiaren araberrako bilaketarik, hain justu,  
gure hiztegiaren jo baitu etimologiaren bila.

Izatekotan, hiztegiaren eginiko proposamen etimologikoen zerrenda bat  
da, eta egokiago egongo da gure lan etimologikoaren emaitzaren sinte-  
si moduan beste eranskin batean aurkeztuta. Horretaz gain, zerrenda  
hauetako balio erantsia eman geniezake, haien funtzioa hobeki muga-  
tzearekin batera, etorkizuneko lanketetan bi lan gehigarri egingo bage-  
nitu: 1) osarazko proposamen etimologiko bakoitzak duen egiantz  
maila adierazi (bestela, ezinbestean jo behar baita testura, azalpen  
xeheagoen bila); 2) autore batzuen eta besteen etimologiak modu sis-  
tematikoan bildu, osoko zerrenda gisa. Egiari zor, bigarren puntu hone-  
tatik proiektu historiografiko betearen erator daiteke, helburu izan leza-  
keena proposatu izan diren euskal hitzen etimologia guztiak biltzea.

- b) Hiztegien zehar aipatzen diren euskaraz besteko hizkuntzetako hitzak bi aurkibidetan daude banatuta: batzuk, arestian esan bezala, I. aurkibidean daude, euskal maileguen jatorri diren erdal hitzen zerrenda osatuz; beste batzuk, berriz, II. aurkibidean daude, “Beste hizkuntzetako paraleloak” izenburupean, eta paralelo semantiko gisa erabili diren erdal hitzen zerrenda osatzen dute.

Bi zatitan egin den banaketa hori, nire ustez, ez da aukerarik egokiena: irakurleak, erdal hitz jakinen bat bilatzen badu, sarrera konkretura jotzen duenean ikusiko du zertarako erabili den partikularki erdal hitz hori, paralelo semantiko gisa edo maileguaren jatorri.

Hutsune bat ere bada hitzon harira: hiztegien zehar aipatu diren erdal hitz batzuk ez dira ez batean ez bestean jaso. Horietakoak dira latinezko *peccatum*, *tempora* eta *cella*, adibidez, hitz hastapeneko herskariaren ahostuntzearen adibide gisa erabili direnak *bake*-ren sarreran, edo *polit* sarreran agertzen diren lat. *filum*, *pala* eta *peccatum* (berriz ere), etab.

Bi kontu horiek aintzat harturik –1) daudenak bi aurkibidetan banatuta daude, 2) erdal hitz batzuk kanpoan geratu dira–, konponbide erraz bat izan daiteke, nire ustez, euskaraz besteko hizkuntzetako hitz *guztiak* zerrenda bakarrean ematea, zinezko aurkibide bat osatuz.

- c) I. eranskineko zerrenda kronologikoan irizpideak hobeki zehaztu behar ditugu, kasu askotan unean-unean esanguratsua iruditu zaigunaren arabera erabaki dugulako hitz bat bertan sartu behar zen ala ez: adibidez, elkartu-eratorri batzuk sartu dira zerrenda kronologiko honetan, baina beste batzuk ez, irizpide tinkorik gabe.

Beste adibide bat aipatzearren, *polit* hitza bitan agertzen da, behin testuetako ~1580ko Lazarragaren datarekin, beste behin tradizio sekundarioko adibideko 1540koarekin (bide batez, lehenagokoa da, 1539koa, emana dugun lehen adibidea; ziur asko azken unean sartu genuen sarreraren erredakzioan, eta ez zen iritsi eranskinera). Ez dugu beti hola jokatu, ordea, lehen adibidearen data baizik ez baitugu eman gehienetan, aintzat hartu gabe tradizio sekundariokoa ala testuetakoa zen.

Esan bezala, irizpideak hobeki finkatu beharko ditugu ondoko edizioetarako, aurkibideen eta zerrenden helburuak ondo bereiziz, eta bakoitzari dagokion tokia emanaz.

## 6.2. Bestelako zuzenkizunak

Atal honetan, nire ustez hobetu, osatu edo alda daitezkeen beste zenbait puntu zerrendatuko ditut.

- a) Gorago (§5.5) aipatu ditudan *extei*, *uzta* eta *makila* bezalako maileguetan, sarrerak beste modu batean antolatu behar dira: benetako mailegua aditza baita *-exteiatu*, *uztatu*, *makilatu-*, hari buruzko sarrerak izan behar du sarrera nagusia; izenek, euskararen barreneko sorkuntza diren neurrian, aparteko sarrera batean agertu behar dute, edo nagusi horien peko. Harreman etimologiko horiek guztiak antolamendu lexikografikoan islatu behar dira.
- b) Etimologiarako bereziki esanguratsuak izan daitezke hiztegi dialektal azentudunak, José Ignacio Hualdek gogorarazten didan bezala. Sarretako parte historikoan zenbait aipamen egiten badugu ere hitz honen edo haren azentuaz, ez ditugu hiztegi dialektal azentudun horiek modu sistematikoan arakatu. Ondoko edizioetarako kontuan hartu behar ditugu Hualde & Bilbao (1992), Hualde, Elordieta & Elordieta (1994), Gilisasti (2003) eta Lujanbio (2013 [2018]).
- c) Zenbait sarreratan, etimologiaren aldetik esanguratsu ez diren eratorrien zerrenda batzuk neurrigabe dira luzeak; ikusi, adibidez, *ile*. Sarreraren egitura, hori da tokiz kanpo maizenik dirudien atala. Hiztegiaren kontzeptua bera dago arazo honen koskan: hiztegi historiko bat nahi dugu, OEHren elaborazio bat litzatekeena, baina haren hainbat informazio errepikatzen dituena, ala bestelako zerbait behar dugu, OEHtik askatua eta haren osagarria?

Egitasmoaren hasieratik arrastaka ekarri dugun auzi bat da hau, artean ez baikenuen erabat erabakia zein izango zen sarreraren mikroegitura. Ondoko edizioetarako gogoetagai berebizikoa da hau, EHHeren

funtzioa zein den hobeki mugatzera eraman behar gaituena eta sarre-  
ren mikroegitura baldintzatu behar duena.

- d) Aurreko puntuaren ildotik, eratorri esanguratsuen (“●” zeinuarekin markatuak direnen) tratamendua hobeki finkatu behar dugu. Adibidez, *adimen/adimendu* edo *barkamen/barkamendu* bezalakoetan, atzikiari buruzko zehaztapen gutxi batzuk eman dira, baina, egiari zor, atzizki horien banaketari eta historiari buruzko analisi sakonik ez dugu egin pasarte horiek erredaktatu baino lehen, eta baliteke bikote baterako esandakoak (*adimen/adimendu*-rako esandakoak, adibidez) baliorik ez izatea besteetarako. Holako ikerketa historiko xeheak eginak ez diren bitartean, guk ere ongi mugatu behar dugu zein informazio ematen dugun eta zein ez.

Auzi beraren ifrentzua erakusten du *ezagupen*-en adibideak: kasu honetan, hitz horri eta haren atzikiari buruzko informazioa oso mugatua da eta birpentsatu beharko genuke zenbateraino merezi duen halako batek puntu beltzaren maila izatea (ez dugu, esaterako, *ezagumen* edo *ezagumendu*-rik aipatu bertan).

Oro har, ongi zehazteko dugu eratorri horien aldaera fonetikoak, alo-  
morfoak eta abar zenbateraino diren esanguratsu. Egiari zor, batzue-  
tan aski zaila suertatzen da hau, baina irizpide batzuk markatu behar-  
ko dizkiogu geure buruari, batez ere atzizkien tratamenduan eta  
azalekoak diren bilakaera fonetikoak esplikatzean.

- e) TAVeko testuentzat, eta oro har eresi eta kantu zaharrentzat, eraba-  
ki genuen gertakari historikoaren data ematea testuaren data gisa. Nire ustez, hobe da jasotzailearen data erabiltzea (Garibai, Ibar-  
guen-Cachopín...), objektibotasunaren izenean, eta testuaren filolo-  
giari atxikiago zaiolako jasotze data hori; informazio filologikoa gal-  
tzen da gure irizpidearekin, eta irabazi ere, ez dugu askorik irabazten,  
ez bada zenbait hitzen lehen agerraldia aurreratzea tranpatxo filolo-  
giko horren bitartez. Orobatsu gertatzen da, nire ustez, errefrau bil-  
dumen datak mende batez aurreratzearekin: justifikazioa baldin bada  
mende bat lehenagoko hizkuntz egoera islatzen bide dutela erre-  
frauok, justifikazio ahula iruditzen zait, irristakorra baita irizpidea

(berdin argudia genezake Etxeparek umetan jasotako hizkera islatzen duela bere helduaroko hizkerak, zeina erabat eztabaida antzua baita). Nire ustez, filologo gisa, edo hiztegi honen irakurle gisa, presente izan behar dugu atsotitzen izaera berezia, besterik gabe. Ezin dugu euskalari gisa egokitu zaigun filologiaren aurka egin.

- f) Corominesen eta Wartburgen hiztegiatarako deia egiteko, egokiagoa da ohikoak diren DECat, DCECH eta FEW siglak erabiltzea, EHHEn darabiltzagan “Corominas”, “Coromines” eta “Wartburg” baino. Reyren ordeztu, haren iturri TLF aipatu behar dugu.
- g) Erreferentzia eta laburdura batzuen notazioan, zenbait alde daude hitzaurrearen eta testuaren artean. Mitxelenaren lanak aipatzean, adibidez, hitzaurrean jatorrizko dataren arabera ematen dira; hiztegi-ko testuan zehar, berriz, *Obras Completas* bildumaren arabera, lanaren urtea agertu gabe. Nire tesirako eginiko notaziozko aukeraren zordun da hiztegi-ko testuan jarraitutako irizpidea, eta egokiagoa iruditzen zait orain Joseba Lakarraren hitzaurrekoa.

Dialekto marken laburdurak ere ez dira berdin erabili hitzaurrean eta hiztegi-ko testuan zehar. Kasu honetan, nire ustez, hitzaurrekoak EHHEko laburdura orokorren arabera eman behar ditugu.

- h) Bibliografian zenbait kontu txukundu behar ditugu. Adibidez, Mitxelenaren artikuluen erreferentzietan, SHLV edo LH artikuluko bildumetara igorri baino, bidalketa eguneratu eta 2011n argitaraturiko *Obras Completas* bildumara bidaltzea da egokiena.

Bestalde, bibliografian zerrendatzen diren zenbait lan ez ditugu inon aipatu, ez hitzaurrean ez hiztegiaren testuan (“Gorrotxategi 1993b” eta “Rohlf 1952b”, adibidez) eta bibliografiatik kendu behar dira.

Beste adibide bat aipatzearen, Manuel de Hozen 2010-2011ko laneko liburukietako bakarra agertzen da bibliografian (2011a erreferentziarekin), nahiz eta biak aipatzen diren hitzaurrean.

- i) Edukiari dagozkion hainbat aldaketa ttiki ere egitekoak dira, sareratzeko bertsioari begira, harrapatu ditugun idazketa-hutsen zuzenketez

gain. Hiru adibide aipatuko ditut: Patxi Salaberri Zaratiegik idatziz helarazi zigun bezala, *izterbegi* sarreran eman ditugun *Isterbegi* toponimoen kokalekuak okerrak dira, eta ondoko bertsoetarako zuzenduak ditugu horiek. *Apalategi*-ren Erdi Aroko lekukotasunak lehenagokoak ere badira, eman dugun 1462koa baino zaharragoak. *Kutxa* sarreran, frantses zaharrekotzat dugu emana *hūtīca*, eta ez da hala, Erdi Aroko latinekoa baita (aurkibideetan ere zuzendu behar da).

## 7. EHHEko etimologiagintza etorkizunera begira

Atal honetan bildutakoak ere EHHEn hurrengo edizio batzuetarako edo sareko bertsiarako zuzenkizun gisa uler daitezke.

### 7.1. Familia-kidetasunak eta zalantzapeko etimologiak

Hiztegi honek lexikografiaren alorrari egiten dion ekarpen nagusietako bat familiakako antolaketa da eta horretarako sortu den aparatu lexikografikoa. Izan ere, euskara bezalako hizkuntza isolatu batean berebizikoa da harreman etimologikoen hierarkiak ongi islatuko dituen makroegiturazko antolamendua; hori ez da hala bestelako tradizioetan, zeintzuetan sarrera (edo erro) baten pean biltzen diren hainbat hizkuntzatarako kognatuak (Pokorny 1959), edo, azken buruko etimoa zein den gauza ezaguna delarik, sarrera bati dagozkion hitzen arteko harreman morfologikoa agertuko lukeen egitura lexikografikoa banala den (DCECH, DECat, etab.).

Hori esanik, arrisku bat dago gurean: familia baten azterketan ari garelarik, hainbat hitz hari dagozkiola pentsatzea, horretarako behar den aski ziurtasunik izan gabe. Hain zuzen ere, hala gertatu da kasu batzuetan, eta, ondorioz, EHHEko zenbait familia gehiegizkoak suertatu dira: sarrera batzuk esleitu diegun familiari zinez ote dagozkion ziur egon gabe, familia batzuk puztu dira.

Ziurgabetasun horretaz ohartarazteko “!” ikurra erabili izan dugu, baina, nire ustez, zalantzak edo eragozpenak gehiegizkoak direnean nahasgarria ere izan daiteke zeinu hori erabiltzea: azken batean, sarrera bat grafikoki eta

hierarkikoki familia jakin baten *barruan* agertzeak berme moduko bat ematen dio familia-kidetasun horri. Bestela esanda, batzuetan badirudi familian sartu “nahi” izan ditugula sarrera batzuk, gure ezina aitortu beharrean. Eta, horren harira, gogoan hartu beharko genuke gure lanaren balioa ez dela neurtuko ongi “asmatu” dugun etimologia kopuruaren arabera, baizik haien alde pilatu ditugun argudioen balio kualitatiboaren arabera.

Jarraian xehekiago azalduko ditut ikusten ditudan arazo zenbait, adibide konkretuak hizpide hartuta:

- a) *Ino* familian (*Inotsi* azpisarreraren *Erauntsi* azpisarreran) sartu ditugu nire ustez ziurtasun maila askirik ez duten zenbait sarrera, hala nola *erosta* ‘hil-kantu, eresi’, *herots* ‘hots’ eta are *eresi* ere, esango nuke. Hoskidetasun hutsarengatik sartu direla esan liteke, eta balizko esanahi antzekotasunarengatik, eta hori erabat jardun azientifikoa da, ikerketa etimologikoa saihestu beharrekoa. *Erosta* ‘hil-kantu’-ren kasuan, gutxienez aipatu behar da badela gask. *aurost* ‘hil-kantu’ ere (LespyR s.v.), eta, hitz gaskoiaren etorkia argia ez bada ere, horren berri eman beharra dago. *Herots*-en kasuan, berriz, bigarren osagaia *hots* izatea aski egiantzekoa da –\**eranots*-en aukera bezainbat–, nahiz eta, *abarrots*-en kasuan ez bezala, ez garen gai lehen osagaia zein den argitzeko; maila erabat hipotetikoan, \**eror-hots* bururatzen zait (cf. ‘hodeietatik erortzean kazkabarrak egiten duen soinua’ adiera). Laburbilduz: kontuan harturik holako hipotesi etimologiko guztiek beren froga-ezinean egiantz bera dutela, ez genuke beharrik sentitu beharko haietako baten alde egin eta, ondorioz, eskuartean dugun familian sartzeko.
- b) *Zur*-en familia zabalean ere ez zen ezer gertatuko barrenean bildu ditugun sarrera batzuk kanpoan utzi bagenitu: *zintz* (era berean zalantzazko azpisarrerak ere badituena, hala nola *zintzarri*, *txintxa*, *zintzur*), *zirin*, *zirt* (fonosinbolismoaren azalpena ere baduena, bestalde), etab. Horien aldean, egiantzekoagoa suerta daiteke, sarrerak ongi landuz gero, *txukun* eta *zukun* familia honetan sartzea. *Txukun*-en ‘garbi, apain’ agian ez dago urruti *zuzen*-ek dituen adieretatik. Bestalde, ‘zotin’ adiera Urteren “Angina vinaria, *hordi xukhúna*, *zukhúna*”-rekin lotu behar da, ia zalantzarik gabe, eta baliteke esanahiaren aldetik

*zurrun* eta haren eratorritzat jo dugun *zurrunga*-rekin lotu ahal izatea, guztiak direlarik zurruntze, tinkatze edo gogortze moduko bat. Bada, gainera, beste *zukun* bat ere, 'irazki' esanahiarekin. Esan bezala, ongi aletu behar dira xehetasunak, baina lehen begi-kolpean behintzat egiantzekoagoa egiten zait hauek *zur* familiaren barrenean egotea arestian aipaturiko horiek baino.

- c) *Izter*-en familian *txistor* sartu dugu, baina eragozpen formalak ez ditugu gainditu eztabaidan, eta niri neuri gehiegizkoak iruditzen zaizkit *txistor*-en sarrera bertan kokatzeko.
- d) *Baso* eta *baxter* sarrerak ere *\*bar* erroari dagokion *barren* familiaren barruan ezarri ditugu. Bertan agertzen diren bilakaera fonetikoak ez dira ezinezkoak, baina, nire ustez, ematen ditugun azalpenak ez dira aski familia horretakoak direla ziurtasun maila minimo batekin zedarritzeko. Zehazki, egiantz apalekoa iruditzen zait balizko *\*barr(e) z-be(he)ra* batetik *baxter*-erako bilakaera:<sup>9</sup> fenomeno fonetiko bat gertatu ahal izateak eta ezinezko ez izateak ez du esan nahi ezinbestean guri komeni zaigunean gertatu behar duenik. Honen harira, baliagarria da gogora ekartzea Mitxelenaren hitzok:

El camino que va desde *veedor* [*endore*-raino], plausible por el sentido, no es tampoco formalmente imposible: pérdida de *b-*, y *-n-* adventicia por disimilación de la *-r-* anticipada por repercusión, como en *haintzur* 'azada' de *haitzur*, etc. Pero cada una de las fases del proceso supuesto, perfectamente posible en sí, va restando verosimilitud a la etimología.<sup>10</sup> (Mitxelena 1965: 119, etzana nirea)

*Baxter* eta *baso*-ren kasuan, gainera, esanahizko azalpenak ere, ezinezko izan gabe, lausoegiak dira, eta norbaitek esan lezake "edozer da posible"-ren eremukoak direla.

<sup>9</sup> Lakarraren (2018: 475) *\*bar-z-be(he)ra* honen aldean, sinesgarriagoa da nire ustez, bere arazo eta guzti, sarrera honetan bertan proposatu dugun beste aukera –zilipurdi fonetiko gutxiago behar du–, zeinaren arabera bigarren osagaia *\*der* izan daitekeen.

<sup>10</sup> Kasu honetan, gainera, esanguratsua da Mitxelenak aipatzen duen *veedor* hori baino jatorri egokiagorik topatu izana: *tenedor* proposatzen du Alfredo Oribek *endore*-ren jatorri modura, ik. EHHE s.v.



Beste batzuetan, sarrera batzuk familia zabalago batean egoteko irizpideak zein diren ez dago argi, hiztegian landu diren beste sarrera batzuekin alderatuta:

- e) *Su*-ren familiaren barrenean geratu da *susperro* sarrera, nahiz eta bertan lantzen den eztabaida etimologikoaren ondorio nagusiaren arabera hitz hori ez den *su*-ren gainean osatu. Bestelako aukera egin zen *gartzeta* sarrerarekin: berez, *gain*-en barreneko eztabaidari loturik sortu zen sarrera –*garondo*, *garaite* eta halakoekiko hurbiltasun semantikoarengatik–, baina ikusirik lotura etimologikorik ez zela, familiatik kanpora eraman zen sarrera. Nire ustez, bigarren aukera hau da zuzena den bakarra, eta irizpide etimologikoari hertsiki lotzea da nire proposamena. Hortaz, *susperro*-k ez du “!” ikurra behar, familia horretatik kanpora eramatea baizik.
- f) Antzeko egoera dugu *orkatz* sarrerarekin: *hoin*-en familian dago, “!” ikurrarekin, baina ez dago argi zergatik dagoen hor, *orein* sarrera kanpoan baldin badago. Zalantza maila berbera dugu, zalantza-mailak neurtzeko gai garen neurrian, bata zein bestea *hoin*-en familiakoa den erabakitzeko.

Nire ustez, familia batzuk kostatuta ahala kostatuta osatzeko hartu diren erabakien adibide garbiena da *zor*-en familiarena: diagnostikoan bertan ematen zaigu *zori*<sub>2</sub> ‘patu’ eta *zori*<sub>2</sub> ‘heldu, umo’ esanahiaren aldetik lotzeko dugun ezintasunaren berri, eta ezintasun hori are nabarmenagoa da *zor*-en esanahiarekin erkatzean. Kasu honetan, gainera, ez du laguntzen *zor*-en dardarkaria anizkuna izateak. Hainbestekoak dira arazoak, non ez den garbi ulertzen zergatik bildu behar izan diren horiek familia berean. Diagnostikoko paragrafoan aipatzen den *zorri*-rekin ere gaindiezinak ziratekeen arazoak eta, ikerketen egungo egoeran, *zor*-ekin lotzeko saiakera antzua litzateke; hitz honen kasuan, azkenerako *zorri* sarrerarik ez da gehitu familia horretan.

Hauetako gehienetan, badirudi itxura hutsaren arabeko erkatzeak eta familia-esleitzeak egin direla eta, neurri batean, zenbait hitzetan, nahiz eta eztabaidako testuan beti saiatu garen proposamenaren argiak eta itzalak tentuz neurtzen, erreproduzitzen ari gara euskal lexikoaren barreneko elementuen konparazioan besteri beste hizkuntzetako (Kaukasoko hizkuntze-

tako, aitzin-indoeuroperako...) hitzekiko konparazioan leporatzen diegun jardun azientifiko bera, beste maila batean bada ere.

Horrela arituta, nire iritzia da hondatu egin dugula familia zenbaiten itxura orokorra, eta ondoko edizioetan zuzendu beharreko kontu bezala ikusten dut. Egokiagoa iruditzen zait familia batekiko kidesun ziburra ez duten hitzak familatik aparteko sarreretan lantzea; zuhurrago jokatzea, funtsean. Zilegitasun zientifiko handiagoa izango dugu, zuhurtzia ere besteri eskatu baino lehen guk gerok praktikatzan badugu, hitz bat familia jakin batetik kanpo jartzeak ez baitu galarazten sarrerako eztabaida etimologikoan hitzaren balizko kidesun hori aztertzea. Bestela esateko, gure mugak zuhurtziaz aitortzea etimologiagintza osasuntsu baten adierazlea da, ez gure ezgaitasunarena, eta hala ulertu behar dugu.

Arazo hau gainditzeko, bide bat da gure etimologiaren kalitatea neurtzeko tresnak garatzea eta hori egingo dut §7.2 atalean. Hori baino lehen, ordea, §7.1.1 atalean, arazotsuak diren familia-kidesunen zerrenda eskainiko dut.

#### 7.1.1. *Berregokitu beharreko familiak*

Ondoko taulan EHHEko hainbat sarrera zerrendatu ditut, zeintzuen familia-kidesuna berraztertu behar baita, nire ustez, ikerketen egungo egoeran (hots, guk garatutako eztabaidan) aski arazo ikusten dugulako, semantiko zein formal izan, familia-kidesun hori gutxienerako ziurtasunez ezartzeko.

Taula 2. Sarrerak eta familia-kidetasunak: arazoak

Familia	Sarrera	Eragozpena
ADAR	JARRI, LAR, LARRE	* <i>dar</i> erroaren jatorrizko esanahia hobeki zehaztu beharra dago. Horretaz gain, <i>jarri</i> -ren deribazio fonetikoan ere, *- <i>d</i> > -Ø- onartzea ere ez da ehuneko ehunean ziurra, edo behintzat ez ditugu aldaketa horren testuinguruak eta baldintzak ongi ulertzen. Bilakaera hori itsu-itsuan ez aplikatzeko ohartarazten gaituzte <i>jan/edan</i> moduko bikoteek.
ALHATU	ALHABA	<i>Alhaba</i> hitz orokorra da euskaraz, eta <i>alha</i> mailegutzat dugu. Eragozpena izan liteke hori, eta hobeto lantzeko puntua: <i>-ba</i> atzikiaren emankortasunaren iraupenari buruzko ohar bat beharko luke honek.
ANAIA	NEBA	Eragozpen formal larriak.
AZAL	ZAIL, ZALDI	Arazo formalak ditugu <i>zail</i> -ekin, esanahizkoak <i>zaldi</i> -rekin.
BARATU	BARE <sub>1</sub> , BARE <sub>2</sub> ...	Mailegutzat dugu <i>baratu</i> eta, era berean, familia zabala du, euskal eremu osoa betetzen duten eratorriekin. Kontuan hartzekoa da ohar hau eta nolabait islatu behar da, dela sarreraren egiturari, dela eztabaidaren garapenean.
BARREN	BASO, BAZTER	Ikusi §7.1.
BERNA	HEZUR, BELAUN	Bilakaera irregularra dugu <i>hezur</i> -en kasuan, eta hori nabarmendu beharra dago: zergatik dugu <i>-m</i> > <i>-n</i> - bilakaera? Cf. <i>berna</i> bera. Eta are gero, <i>-n</i> (- <i>N</i> -?) > Ø. Disimilazioaren aukera hobeki garatu behar da, arazo hauen berri emateko.
BORTZ	ORTZI, HOGEI	Bilakaera fonetikoaren gorabeherak hobeki neurtu behar ditugu, <i>b</i> - > Ø- orokor bat onartu behar baita, besteren artean. <i>Ortzi</i> sarrerari, Dieguez (2002) aipatu behar da.

Familia	Sarrera	Eragozpena
BOZ	POZ	Proposamena interesgarria izanagatik, batez ere Mitxelenaren hipotesiaren lausoa gainditzen duelako, agian egokiagoa da oraindik zein bere familian aurkeztea.
EBAN	EBATSI	Ez dago argi zein den arrazoa <i>-ts</i> atzizkiaren aukera hobesteko, balizko <i>*bats</i> erro baten aldean. Egia da, hala ere, aski modu neurtuan garatu genuela <i>-ts</i> atzizkiari dagokion eztabaida, batez ere <i>eutsi</i> sarreraren irakurketarekin konbinatzen bada <i>ebatsi</i> -rena. Soluzio errazik gabeko erabakiak dira hauek.
EDIN	JAIO, JARRAIKI, ERION, HERIO, ARERIO...	Deribazio fonetikoan jauzi ugari daude; aditz zaharren morfologia ere ez dugu aski ongi ezagutzen, familia-kidetasunak ziurtzat jotzeko.
EDUN	HEURAGI, JAUN	Orobatsu.
EGOTZI	URGATZI	Deribazio fonetikoan bilakaera irregularrak ditugu. Esanahizko lotura ere ez da argia.
EGUN	HIGUIN, UDARE, MALKO	Esanahiaren gorabeherak ez daude ongi ezarriak. Formazko gorabeherak ere ez daude erabat argi <i>udare</i> eta <i>malko</i> -ren kasuetan, besteak beste.
EHO	JOAN	Erroaren esanahia ez dugu ongi zehaztua, eta jauzi fonetikoak daude.
EKIN	IDE/KIDE	Erroan <i>*kin</i> dugu, baina <i>ide/kide</i> bikotean herskaririk gabea dugu zahartzat, <i>hi</i> -alomorfoarekin.
ENTZUN	EZAGUN, ZAURI	Irregularitasun fonetikoak daude etimologiaren oinarrian.
GOR	GOLDE	Arazo fonetikoa dugu, elkartu-eratorrietako <i>-r</i> > <i>-l</i> aldaketa dardarkari bakunarekin gertatzen baita.
HANDI	AKER, AHARDI, AHARI, AHUNTZ, AKETZ	Ez dago argi balizko <i>*han</i> erro batek zein esanahi lukeen hauetan guztietan.

Familia	Sarrera	Eragozpena
HOIN	ORKATZ, OHONDIKATU	Ikusi §7.1. <i>Ohondikatu</i> -rentzat, xehetasun formalak ez ditugu behar bezala ezarriak.
HOTS	OSPA	Esanahiaren aldetik lotura ez da argia, eta formaren aldetik ere <i>-pa</i> zehazki zeri zor zaion ez dakigu.
HUR <sub>1</sub>	HUR <sub>2</sub>	Deribazio semantikoa ez da erabat gardena, eta dardarkariaren gorabeherak ez ditugu behar bezala ezarri.
INO		Ikusi §7.1.
IZTER	TXISTOR	Ikusi §7.1.
KUTXA	KUTXOT	Baliteke zein bere aldetik mailegatuak izatea.
LATS	ADATS, ARRATS	Deribazio fonetikoan irregulartasunak ditugu, eta <i>*dats</i> erroaren esanahia ez dugu ongi ezarria.
MIN	MIHI	Lotura semantikoa ez dago ongi ezarria. Gehigarri modura, aipa liteke ‘mihi’ eta ‘gar’ esan nahi duten hitzak kolexfikazio harremanean daudela zenbait hizkuntzatan (CLICS <sup>3</sup> s.v.).
ODOL	JORI, ERORI	Formazko xehetasunak ez dira argiak: <i>*dol</i> erroaren bukaerakoa den albokariaren VIV > VrV bilakaera? Bestalde, <i>*dol</i> erroaren esanahia zehazteko dugu.
SOR	SO	Lotura semantikoa ez dago ongi ezarria.
SU	SUHI	Proposamena egiantzekoa bada ere, <i>suh</i> -ren etimologiaren oinarrian ezarri dugun ohitura izan zenik ziurtatzeko ez dugu datu antropologikorik.
ZOR		Familia osoaren azpifamilia nagusien lotura semantikoa da zalantzakoa.
ZUR	ZORO, ZINTZ...	Ikusi §7.1.

Arazo hauek egoki identifikatzeak gure etorkizuneko lanerako oinarria ezarriko du, hobekuntzarako bidean: guri egokitu zaigu hizkuntza isolatu baten hiztegi etimologikoa egitea eta horretarako sortu dugun aparatua lexi-kografikoa fintzea eta hobetzea ere guri dagokigu, familien barreneko hie-

rarkia morfoloġiko eta semantikoak –elementu lexikoen arteko harreman etimologikoa– hobeto islatu ahal izateko. Hurrengo ataleko gogoetak helburu horrekin eginak dira.

## 7.2. Etimologiġen fidagarritasun maila neurtzeko tresnen bila

Hizkuntzalaritza indoeuroparra bezalako tradizioetan ere izan dute etimologiġen kalitateari buruzko kezkarik. Etimologia batek izan litzakeen eragozpenak ahalik eta modurik objektiboenean zehazteko helburuz, Mailhammer-ek haien kalitatea neurtzeko lau maila definitzen ditu:

Category A: Exact formal and semantic match in at least two non-adjacent branches of the same family. [...]

Category B: Transparent formation using a known pattern but no exact match outside branch, or only in adjacent languages, or formally and/or semantically inexact matches. [...]

Category C: Connection to roots outside branch uncertain due to serious formal and or semantic problems requiring additional assumptions. [...]

Category D: No known connections outside branch or only uncertain connections in adjacent languages. (Mailhammer 2015: 430-431)

Kategoria bakoitzeko irizpideen ondotik haiei dagozkien adibideak ematen ditu. Nabarmena da irizpide hauek ez direla egoki euskara bezalako hizkuntza isolatuen azterketa etimologikoetarako: definizioz, gure etimologietako bakar batek ere ez luke lortuko A-maila (euskalkien konparaziotik erdiets genitzakeen apurretatik harago), Mailhammeren irizpideek konparazioan oinarritutako berreraiketa egin ahal izatea baitute baldintza. Tradizio ezberdin bateko ikasketen egoeraren lekuko da tresna hori, haiei egokitua.

Bestelakoak behar dute hizkuntza isolatu baterako zehaztu beharreko irizpideek. Mailhammeren ideia gurera ekarriz, beraz, haren mailaketaren ordezkotako irizpide sorta bat proposatzen dut behin-behinean, etorkizunean fintzeko eta doitzeko asmoarekin.

7.2.1. *Ondare zaharreko hitzen etimologientzako irizpideak*

Hizkuntza isolatu bateko ondare zaharreko hitzez ari garela, item lexiko bat etimologia egoki batez hornitzea ezin da izan “bila ditzagun kognatuak hizkuntza-ahaideetan” printzipioaren araberkoa. Hizkuntza isolatu baten kasuan, “bila ditzagun hizkuntza honetan familia bereko hitzak” printzipio-tik abiatzen da etimologia on bat; bestela esateko, hizkuntzaren barreneko item lexikoen artean bilatzen dugu ahaidetasuna.

Bi ardatzen inguruan egikaritzen da etimologia on bat: (a) alderdi formal eta (b) alderdi semantikoa, eta bata bestea bezain garrantzitsua da.<sup>11</sup> Alderdi formalaren barrenean, (a') irizpide fonetiko hutsa eta (a'') deribazio morfologikoa edo hitzaren barne-osaerari dagozkionak bereizten ditut.

Bost kalitate graduako mailaketa bat zehaztu dut, proposaturiko etimologiek izan ditzaketen arazoan araberkoa. Deribazio formal bat arazorik gabekotzat jotzeko, beharrezkoa da etimologia horren barrenean proposatzen diren bilakaera fonetikoak eta osaerazkoak hitz horretatik kanpo dokumentatuta egotea. Esanahizko hurbilketek ere, arazorik gabekotzat jotzeko, metonimia edo zabalkuntza semantiko arruntez behar dute esplikatua izan, eta ahal bada beste hizkuntzetako paraleloak aurkitu behar ditugu; azken puntu hau ezinbestekoa da bi item lexikoren arteko hurbiltasun semantikoa agerikoa ez denean.

*A mailako etimologia:* arazo formal eta semantikorik gabea.

- Adibidea: *hatz* eta *hazi*.
- Proposaturiko etimologia: *hazi* = *hatz* ‘arraza, kasta’ + *-i* partizipio marka.

<sup>11</sup> Erromanisten artean, “[l]a reconstruction du sens des étymons trouvés par la méthode de la reconstruction comparative est aussi nécessaire que celle de la forme, même si elle ne peut pas s’appuyer sur des critères aussi formalisés” (Chauveau 2014: 199). Orobat, “The meaning of a word is an essential part of an etymology, and is equally important as the formal aspects. This involves reconstructing the earliest meaning and accounting for subsequent changes” (Mailhammer 2015: 426).

· Xehakapena:

- (a') Fonetikaren aldetik, ezaguna da oinarri lexikoaren bukaeran afrikatuaren eta igurzkariaren arteko txandakatzekak ditugula ageriki familia berekoak diren hitzetan, cf. *hats/haserre, gatz/gazi*, etab.
- (a'') Osaeraren aldetik, erregularra da *-i* atzikiaren bitartez partizipioak sortzea.
- (b) Esanahiaren aldetik ere aski egiantzeko lotura dago: *hatz*-en dokumentatua dugu 'arraza, kasta' adiera, eta horrek errazten du *hazi*-rekiko lotura; gogoan har bedi, adibidez, ingelesezko *breed*, zeinak bi balioak dituen, 'leinu' eta 'hazi'.

*B mailako etimologia:* esanahiaren aldetik arazorik ez, deribazio formalean arazo fonetikoren bat.

· Adibidea: *sagu* eta *sator*.

· Proposaturiko etimologia: *sator* = *sagu* + *gor*.

· Xehakapena:

- (b) Esanahiaren aldetik, *satorrak* gorrak direlako ustea dokumentatuta dago, eta horrenbestez euskal hitzaren osaera *gor* izatea justifikatuta dago.
- (a'') Hitzaren barne-osaeraren aldetik ere, *satarin* = *sagu* + *-arin* edo *satitsu* = *sagu* + *itsu* ditugularik, bigarren osagai gisa *gor* identifikatzea aski egiantzekoa da.
- (a') Fonetikoa da arazoa, *sat-* + *-gor* elkartuan, ezagunak ditugun elkartuetako fenomenoaren arabera, *\*\*sakor* moduko zerbait esperoko baikenuke (cf. *bet-* + *gain* = *bekain*, *ot-* + *-gin* = *okin*, etab.).

*C mailako etimologia:* esanahiaren aldetik arazorik ez, deribazioa formalean hitzaren barne-osaerazko arazoren bat.

· Adibidea: *gar* eta *garratz*.

· Proposaturiko etimologia: *gar* + *-atz*.



## · Xehakapena:

- (a') Fonetikaren aldetik, ez dago aipatzeko ezer, hitzaren osaeraz esan dezakegunaren menpe baitago.
- (a'') Kasu honetan, *gar*-en familiakoa delako hipotesian, ez dago argi zein den *garratz*-en osaera, ez baitago argi zeri dagokion bukaerako *-atz*. Nolanahi ere, badukegu paraleloren bat edo beste, cf. *mikatz*.
- (b) Esanahiaren aldetik, egiantzekoa da 'erretzen duen zapore' eta 'zapore min'-en arteko hurbilketa.

*D mailako etimologia:* formaren aldetik arazorik ez, baina urruntasun semantiko gehiegizkoak hurbilketa oztopatzen du.

- Adibidea: *zori* 'patu, adur'/*zori* 'umo'.
- Proposaturiko etimologia: biak familia berekoak izatea.

## · Xehakapena:

- (a) Homonimoak dira, eta alde horretatik hurbilketa formalak ez du arazorik.
- (b) Esanahiaren aldetik, ez dugu modurik atzeman loturarik ezartzeko.

*E mailako etimologia:* formaren aldetiko arazoren bat (fonetikoa zein osarazkoa) eta esanahiaren xehetasunak ez daude ongi zehaztuta.

- Adibidea: *adar* eta *jarri*
- Proposaturiko etimologia: \**dar* erroa, aditzetako *e-* aurrizkiarekin eta *-i* partizipio markarekin.

## · Xehakapena:

- (a') Bokalarateko \**eda-* > *ja-* bilakaeran, bokalarateko *-d-* > Ø orokor batetik abiatzen da hipotesi etimologikoa, baina ez du ongi azaltzen zergatik batzuetan gertatzen den, eta beste batzuetan ez (*edan*, *eduki...*).
- (a'') Osaerazko arazorik ez.

- (b) Esanahiaren aldetik, ez dago ongi zehaztuta *\*dar* erroaren jatorrizko esanahia zein den, ez eta zein izan diren adieren bilakaera partikularrak haren familiakotzat ditugun item lexikoetan.

Mailaketa honen helburua da etimologiaren artean kalitate maila ezberdinak modu objektiboan neurtzea, gure jardunaren auto-kontrolerako tresna moduan, zeinaren helburua ez baita maila apalenetako etimologiak baztertea; are gehiago, A mailatik beherakoen balioa hobeki baloratzen laguntzen digu, eta etimologia *guztiek* balioa, *bere* balioa izan dezaketela hobeto ikusarazten.

Lexikoaren eta hari loturiko fenomenoaren ezagutzan sakontzen laguntzen digute, eta balio hori nabarmena da, adibidez, B mailakotzat jo dugun *sator*-en kasuan: *sat-* + *-gor* osaera proposaturik, irregulartzat jo dugu lehen osagaiko *-t* kontsonantearen ahoskagunea gailentzea bigarreneko *-g-ri* lotzean. Alabaina, litekeena da fenomeno horren adibide gehiago izatea: *uhain*-en kasuan, *uh-* (*ur*) + *gain* proposatzen dugularik, gauza bera dugu, eta orobatsu *aztarren*-en kasuan, *hatz* + *barren* baldin badugu. Nabarmena da B mailako etimologia honek orain arte batera aztertzen ez genituen zenbait datu elkarrekin aztertzea eraman gaituela. Aurrez ezezagunak genituen fenomeno fonetiko zaharrak aurkitzen lagundu dezakete, hain zuzen arazoak (fonetikoa, kasu honetan) hobeki identifikatzen laguntzen digutelako. Lehen hurbilketan irregulartasun fonetiko diren horientzat azalpen orokorra aurkitzen dugun neurrian, A mailako etimologia ere bilaka daitezke maila apalagokoak.

Maila batetik besterako aldeak ez dira modu zurrunean hartzekoak: izan litezke C mailako etimologia batzuk B mailakoak baino hobeak, etab. Atal honetan deskribatu dudan arazolari helduta –familia beraren barruan antolatu behar ote ditugu zenbait sarrera lexiko?–, ordea, bereizketa bat egin beharra dago: B eta C mailako etimologiak dituzten hitzen sarrera lexikoak sar ditzakegu proposatzen den familiaren barrenean, baina D eta E mailakoak, nire ustez, kanpoan geratu behar dira, zein bere sarrera lexiko beregainarekin. Izan ere, esanahizko lotura gutxieneko egiantzarekin ezarria ez dagoen bitartean, ez da zuhurra ziurtzat jotzea hitzen arteko familia-kidetasuna.

Honek guztiak, bistan dena, ez du esan nahi D eta E mailako etimologiak ezin proposa ditzakegunik; are gehiago, ezinbestekoa da halakoak proposatzea, orain ezezagunak zaizkigun fenomeno antzinakoak edo loturak azalertzeko. Adibidez, *gari* eta *galdu*-ren arteko harremana D mailako etimologia gisa sailkatuko genuen haien lotura semantikoa argitu baino lehen. Orain, ordea, lotura semantiko hori azalduta (ik. *supra*), A mailakotzat jo dezakegu.

Baina etimologiagintzan abiatzeko, lehendik ongi ezarrita dauden fenomeno fonetiko eta morfologikoak hartu behar dira oinarri gisa. Ez da zilegi, Blevinsek etengabe egiten duen bezala, lehendik ezagunak ditugun hertsapen formalez arduratu ez, eta norberaren proposamenei (bestela ere zilegi eta are beharrezko direnak, bistan dena) bakarrik dagozkien fenomenoak hartzea oinarri gisa hala berean norberak proposatzen dituen etimologiak testatzeko.

### 7.2.2. *Maileguntzako irizpideak*

Ez da artikulu honetako lana maileguak eta ondare zaharreko hitzak nola bereiz ditzakegun zehaztea. Definizioz, mailegu ez den oinarri lexiko oro da ondare zaharreko. Maileguk, ondare zaharreko oinarri lexikoen erro-egituratik aldentzeaz gain, familia txikiak osatzen dituzte eskuarki, eta haien elkartu-eratorriak oso gardenak izan ohi dira morfologikoki. Bistan denez, mailegua zenbat eta antzinakoagoa izan, orduan eta eratorri zaharrago gehiago izango ditu, egokituagoa egongo da hizkuntzaren fonologiara, silaba egiturara... eta zailagoa izango da ondare zaharrekoetatik bereizten.

Mailegu bati buruzko zehaztapen etimologikoen kalitatea neurtzeko zenbait puntu zerrendatuko ditut jarraian:

- a) Proposatzen den etimoaren eta euskal hitzaren arteko aldeez denaz bezainbatean:
  - i) Formazko aldeak: euskararen barreneko bilakaera fonetikoei dagozkien ala hizkuntza emailearen barrenekoak izan daitezkeen zehaztu behar dugu.

- ii) Aldeak esanahian: euskaraz dokumentatzen diren adierak hizkuntza emailean ere ba ote dauden arakatu behar dugu, bilakaera beregaina ala jatorrizkotik jasoa den hobeki erabakitzeko.

Proposatzen den etimoa forma horretan jatorrizko hizkuntzan dokumentatua ez egoteak esan nahi du hizkuntza emailearen hutsune bat betetzen duela euskal lekukotasunak. Maileguen etimologia ez da, honenbestez, hizkuntza hartzailearen etimologiagintzarako interesgarri bakarrik, emailearen ikerketan ere esanguratsua izan daiteke, neurri handiagoan ala txikiagoan. Ikusi Manterola (2020).

- b) Egokitzapen morfologikorik edo sintaktikorik baldin badago, ahalik eta hobekien zehaztu behar da (aditzetan erregimen aldaketa, etab.).
- c) Jatorri arrotzeko familia bereko hitz bat baino gehiago baldin badago euskaraz, zehaztu behar dugu zein den haien arteko harremana: mailegua haietako bakarra izanik besteak euskararen barrenean sortu diren ala, aitzitik, mailegu independente gisa bereganatu dituen euskarak jatorrizko hizkuntzan bertan ere bi hitz (edo gehiago) direnak.
- d) Mailegaketaren kronologia ahalik eta zehatzen finkatu behar dugu, dela hizkuntza hartzaileak dela jatorri hizkuntzak eskaintzen dituen aingura fonetikoak eta bestelako erreferentzia-puntuak erabiliz.

Puntu horiek zein neurritan betetzen ditugun, horren menpe egongo da mailegu baten etimologiaren kalitatea.

## 8. Bibliografia

AGUD, M., TOVAR, A. (1988-1994). *Diccionario etimológico vasco*. (ASJUren Gehigarriak 13, 19, 24, 26, 30, 33, 37). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

ARZAMENDI, J. (1985). *Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI-XVI*. Bilbo: UPV/EHU.

BEEKES, R. (2010). *Etymological Dictionary of Greek*. Leiden, Boston: Brill.

BIDEGAIN, M. (1967). «Textos vascos antiguos», ASJU 1 (1967): 179-195.

BILBAO, G., GÓMEZ, R., LAKARRA, J., MANTEROLA, J., MOUNOLE, C., URGELL, B. (2020). *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa*, 2 lib. Bilbo: UPV/EHU.

BLEVINS, J. (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*. New York: Routledge.

BLUST, R., TRUSSEL, S. (2010-). *The Austronesian Comparative Dictionary (web edition)*. <http://www.trussel2.com/ACD>

BUCHI, É. (2016). «Etymological dictionaries», in Philip Durkin (arg.), *The Oxford Handbook of Lexicography*. Oxford: Oxford University Press: 338-349.

BUCK, C.D. (1949). *A dictionary of selected synonyms in the principal indo-european languages: a contribution to the history of ideas*. Chicago: University of Chicago Press.

BURROW, T.D., EMENEAU, M.B. (1984). *A Dravidian Etymological Dictionary. 2nd edition*. Oxford: Oxford University Press.

CHAUVEAU, J.-P. (2014). «Reconstruction sémantique», in Éva Buchi eta Wolfgang Schweickard (arg.), *Dictionnaire Étymologique Roman (DÉRom) 1. Genèse, méthodes et résultats*. Berlin: De Gruyter: 199 -209.

CLICS<sup>3</sup> = RZYMSKI, C., TRESOLDI, T. et al. (2019). *The Database of Cross-Linguistic Colexifications, reproducible analysis of cross-linguistic polysemies*. <https://clics.clld.org/>

DCECH = COROMINAS, J., PASCUAL, J.A. (1980-1991). *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril: Gredos.

DECat = COROMINES, J. (1980-2001). *Diccionari etimològic i complementari de la llengua catalana*. Bartzelona: Curial Edicions Catalanes.

DIEGUEZ, K. (2002). «Ortziren inguruan», *Uztaro* 40 (2002): 3-18.

DLE = REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (2014). *Diccionario de la lengua española*. <https://dle.rae.es/diccionario>

EHHE = LAKARRA, J., MANTEROLA, J., SEGUROLA, I. (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ERNOUT, A., MEILLET, A. (1932). *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots*. Paris: Klincksieck.

FEW = WARTBURG, W. von et al. (1922-2002). *Französisches Etymologisches Wörterbuch. Eine Darstellung des galloromanischen Sprachschatzes*, 25 lib. Bonn, Heidelberg, Leipzig-Berlin, Bâle: Klopp, Winter, Teubner eta Zbinden.

FHV = MITXELENA, K. (1961-1977 [1990]). *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GAYANGOS, P. (1854). *Memorias de Garibay*. (Memorial Histórico Español: Colección de documentos, opúsculos y antigüedades, que publica la Real Academia de la Historia. Tomo VII). Madril: Imprenta de José Rodríguez.

GILASTI, I. (2003). *Urduliz aldeko berba lapikokoa*. Bilbo: Uribe-Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.

GOROSTIAGA, J. (1982). «El fondo primitivo de la lengua vasca», FLV 39 (1982): 105-132.

GUERRA, J.C. (1924). *Los cantares antiguos del euskera*. Donostia: Martín y Mena.

HUALDE, J.I., BILBAO, X. (1992). *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*. (ASJUren Gehigarriak 29). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

HUALDE, J.I., ELORDIETA, G., ELORDIETA, A. (1994). *The Basque dialect of Lekeitio*. (ASJUren Gehigarriak 34). Bilbo, Donostia: UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

IzaTop = JIMENO JURÍO, J.M.<sup>a</sup> (1990). *Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*. (Onomasticon Vasconiae 6). Bilbo: Euskaltzaindia.

LAKARRA, J.A. (1995). «Reconstructing the Pre-Proto-Basque root», in José Ignacio Hualde, Joseba Andoni Lakarra eta Robert Lawrence Trask (arg.), *Towards a History of the Basque Language* (Current Issues in Linguistic Theory 131). Amsterdam: John Benjamins: 189-206.

——— (2018). «CVCren ertzetako alternantziak eta aitzineuskararen hitz-familien azterketarako hatsarriak: \**ban/bar-/bal*-en zirriborroa», in Joseba Lakarra eta Blanca Urgell (arg.), *Studia Philologica et Diachronica in honorem Joakin Gorrotxategi. Vasconica et Aquitana*. Bilbo: UPV/EHU: 437-486.

LAZARRAGA, J.P. (1604). *Relación histórica de las casas y apellidos de Lazarraga: (privilegio de la Fundación de la Torre de Larrea dada en el año de 839), linage de Erdoñana, de los Otoras y Zuazo Gamboa, de los Velascos, de los puestos y dignidades de*

*unos y otros, todo con remisión a documentos y otras cosas perteneciente a ella.* Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoko eskuizkribua (sig. 5041-1), Sancho el Sabio Fundazioaren euskalmemoriadigitala.eus gordetegian argitaratua. <http://hdl.handle.net/10357/48632>

LH = MITXELENA, K. (1985). *Lengua e Historia*. Joaquín Gorrotxategi (arg.). Madril: Paraninfo.

LespyR = LESPY, J.V., RAYMOND, P. (1998). *Dictionnaire béarnais ancien et moderne*. Montpellier: Hamelin Frères.

LUJANBIO, O. (2013 [2018]). «Goizuetako azentu-hiztegia», ASJU 47/2 (2013 [2018]): 1-86.

MAILHAMMER, R. (2015). «Etymology», in Claire Bowerman & Bethwyn Evans (arg.), *The Routledge Handbook of Historical Linguistics*. Londres, New York: Routledge: 423-441.

MALKIEL, Y. (1976). *Etymological Dictionaries. A Tentative Typology*. Chicago: The University of Chicago Press.

MANTEROLA, J. (2012). «Synchronic ubiquity of the Basque article *-a*: A look from diachrony», in Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun Phrases and Nominalization in Basque* (Linguistik Aktuell/Linguistics Today 187). Amsterdam: John Benjamins: 179-206.

——— (2015). *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. UPV/EHUko tesia. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15848>

——— (2020). «Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance», *Zeitschrift für romanische Philologie* 136/3 (2020): 625-657.

MITXELENA, K. (1949). «Voces vascas. I. (*h*)egi, *tegi*. II. Vasco *azari*, *azeri* y *azenarius*. III. Sobre algunos elementos latino-románicos en vascuence y otras voces vascas», *Emerita* 17 (1949): 195-211. [= OC 8, 235-250]

——— (1950). «Notas etimológicas vascas», *Emerita* 18 (1950): 467-481. [= OC 8, 645-658]

——— (1954). «J. Corominas, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*», ASJU I (1954): 113-118. [= OC 8, 523-528]

——— (1957). «Las antiguas consonantes vascas», in Diego Catalán (arg.), *Miscelánea homenaje a André Martinet* (1. lib.). Canarias: Universidad de La Laguna: 113-157. [= OC 7, 57-91].

——— (1965). «Vasco-romanica», *Revista de filología española* 48 (1965): 105-119. [= OC 8, 623-639].

——— (1966). «Euskal kanta zaharrak [Adabakiak]», *Egan* 1-6 (1966): 134-135. [= OC 11, 27-28].

MOYA, J. (1999). *Esteban de Garibay y Zamalloa. Discurso de mi vida. Edición, introducción y notas de Jesús Moya*. Bilbo: UPV/EHU.

OC = MITXELENA, K. (2011). *Obras Completas (1-15 lib.)*. Joseba Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.) (ASJUren Gehigarriak 54-68). Donostia, Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU.

OEH = MITXELENA, K. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

OREL, V., STOLBOVA, O. (1994). *Hamito-semitic etymological dictionary. Materials for a reconstruction*. (Handbook of Oriental Studies. Section 1 The Near and Middle East, Volume 18). Leiden: Brill.

POKORNY, J. (1959). *Indogermanisches Etymologisches Wörterbuch*. Viena: Francke Verlag.

SCHUCHARDT, H. (1887). «Romano-baskisches I: p-», *Zeitschrift für romanische Philologie* 11 (1887): 474-512.

SHLV = MITXELENA, K. (1988). *Sobre Historia de la Lengua Vasca*. Joseba Lakarra (arg.) (ASJUren Gehigarriak 10, 2 lib.). Donostia: Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo".

TAV = MITXELENA, K. (1990 [1964]). *Textos arcaicos vascos*. (ASJUren Gehigarriak 11). Donostia: UPV/EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

URQUIJO, J. de (1919). *Los refranes de Garibay*. (El Refranero vasco. Tomo 1). Donostia: Martín y Mena.